#162
DOAN

2022 · 05 · 25
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA hemen

CARLOS UZKIANO:
“1.100 lisaburdinek osatzen dute nire bilduma, eta 300 daude ikusgai Urduñako museoan” 20-21 or.

GURE ZIRKUA:
Euskarazko zirku ibiltariak 10 emanaldi eskainiko ditu Amurrion 22-23 or.

Denboraldiko uzta jasotzeko garaia

EKONOMIA 2
Greba eta mobilizazio egunak Arabako metalgintza sektorean
Langileek lan hitzaremn duin bat aldarrikatzen dute

AMURRIO 4
Guardia Zibilaren kolaborazio eskaintzak jaso ditu Galder Barbadok
Gazte amurrioarrak poliziaren jazarpena salatu zuen

LAUDIO 12-13
Gardeako apaiz-etxea emakumeentzako espazio bilakatuko dute
La Familia Inventada elkarteko kideek sortu dute espazioa birgaitzeko proiektua

URDUÑA 14-15
Ataxia-Telangiektasia gaixotasuna ikertzeko dirua bilduko dute
AEFAT elkarteak elkartasun jaialdia antolatu du Urduñan ekainaren 24 eta 25ean

kronika

Jarraipen zabala izan du grebak Aiaraldean. **Aiaraldea.eus**

Greba egunak Arabako metalgintzan, hitzarmen duin baten alde

Hiru greba egun deitu dituzte ELA, CCOO, LAB, USO, ESK eta CGT sindikatuek Arabako metalgintza sektorean. Mobilizazioen helburua SEA patronalaren "immobilismoa" gainditzea dela adierazi dute langileen ordezkariek.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Arabako metala greba ziklo betean dago murgilduta. Sektoreko lan hitzarmena negoziatzeko mahaiak 25 urte darama geldirik eta egoera horren aurrean mobilizatzeko deia zabaldu dute metalgintzako sindikatuek. Hain zuzen ere, hiru greba egun deitu dituzte ELAk, CCOOk, LABek, USOk, ESK-k eta CGT-k, SEA patronalaren "inmobilismoa" gainditzeko helburuarekin.

Maiatzaren 18an egin zuten lehen lanuztea, eta maiatzaren 24an bigarrena. Bihar, maiatzak 26, dute deitua azken greba eguna baina ez dute mobilizazio berririk egitea baztertzen.

Aldarrikapenak

Lan hitzarmen duin bat erdiestea dute helburu langileek egun hauetako mobilizazioekin. Bertan, KPIaren araberako soldata-igoera bat exijitu dute, 14 ordainsarietan banatutako 1.400 euroko gutxieneko soldata jasotzeko. Lanaldiaren jaitsiera ere aldarrikatu dute, "pertsonak erdigunean jarri eta zaintza lanak eta kontziliazioa errazteko".

Sektoreak bizi duen prekarizazioa ere jarri dute jo-puntuan langile mobilizazioek. Horretarako, azpikontraten langileen subrogazioa eskatu dute ABLEei eta behin-behienkotasunari mugak jarriz, besteak beste. Lan osasuna da zentral sindikalek lan hitzarmenaren negoziazioan erdigunean jarri duten beste gai nagusietako bat. Langileen ordezkarien arabera urtean 2.000 lan-istripu baino gehiago jasotzen dira Arabako metalgintzan, eta hauekin amaitzeko neurri errealak eskatu dituzte.

Ozen aldarrikatu nahi izan dute exijitzen ari diren hobekuntza guztiak sektoreko langile guztientzako ari direla eskatzen. "Lan eta bizitza duin baterako bermeak ari gara aldarrikatzen" azaldu zioten Aiaraldea Komunikabideari ELA eta LAB sindikatuko ordezkariek astearteko mobilizazioaren ostean; "onartezina da Arabako metalgintzan lana duen behargin bat pobreziara kondenatuta egotea".

Oihartzuna eskualdean

Greba egunak eragin nabaria izatena ri dira Araban zein Aiaraldean. Sektoreko tailer txiki gehienak itxita daudela nabarmendu dute sindikatuetako ordezkariek. Fabrika handietan ere agerikoa da lanuzteen eragina. Tubacexek, esaterako, gelditu egin du bere produkzioa greba egunetan eta berdina gertatu da beste hainbat lantegietan. JEZ fabrikan, esaterako, grebaren jarraipena %70ekoa izan dela azpimarratu dute langileen ordezkariek. Tubos Reunidosen ere hainbat sekzio geldirik izan direla azaldu dute bertako LAB sindikatuko ordezkariek.

Mobilizazio indartsuak

Piketeak eta manifestazioak izan dira grebako protagonista nagusiak. Aiaraldean asteartean egin zuten manifestazio nagusia, Laudion, eta bihar -maiatzak 26- Gasteizen egingo dute azken indar erakustaldia. Piketeek ere langile eta herritar ugari elkartu dituzte egun hotan. "Argi dago indarra daukagula, eta hori ari gara ikusten enpresa eta poligonoetan, SEA patronalak kontutan hartu beharko du egun hauetan bizitakoa".

Arrankudiaga eta Zollo

Agerraldia egin zuten Arrankudiaga-Zolloko eta Etxebizitza Saileko ordezkariek, zuzkidura-bizitokiak sustatzeko sinatutako akordioa aurkezteko. Lankidetza aintzindaria da Aiaraldean, eta 2024 hasiko dituzte 10 etxebizitzak eraikitzeko obrak.

Jaurlaritzak eta Arrankudiaga-Zolloko Udalak hitzarmena sinatu dute 10 etxebizitza sustatzeko

Arrankudiaga-Zolloko Udaleko eta Etxebizitza Saileko ordezkariak elkartu ziren hitzarmena sinatzeko. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Alokairu sozialera bideratutako 10 zuzkidura-bizitoki eraikitzeko proiektua garatuko du Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak Arrankudiaga-Zolloko Udalak lagatutako lursail batean. Bi erakundeek agerraldia egin zuten maiatzaren 13an proiektua aurkezteko. Bertan izan zen Pedro Jauregi Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuordea.

Garondo auzoan dago kokatuta etxebizitza berriak hartuko dituen lursaila. Hitzarmenean jasotakoaren arabera, Udalak kargarik gabe utzi dio orubea Eusko Jaurlaritzari. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, bere aldetik, hirigintza proiektuaren sustapena egiteko beharrezko agiriak eta dokumentuak osatuko ditu, bai eta eraikuntza garatzeko urbanizazio-obra guztiak kontratatu ere. Aurreikusitakoaren arabera urte amaieran lizitatuko dute proiektua eta 2024an hasiko dituzte obrak. Hasierako kalkuluen arabera lanek milioi bat euroko kostua izango dute.

Aukera zailtasunak dituztenei

Zuzkidura-bizitokiak izango dira Arrankudiagan eraikiko dituztenak. Etxebizitza mota horren ezaugarri nagusia behin-behienkotasuna dela azaldu zuen Jauregi sailburuordeak: "etxebizitzan egoteko epea bost urtekoa izango da". Hain zuzen ere, sailburuordearen hitzetan, "etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonei laguntzeko dago bideratuta proiektua, bereziki gazteak eta pertsona nagusiak".

Etxebizitza txikiak izango dira, bat eta bi pertsona arteko etxebizitza-unitateei bideratuta, 60 metro koadro artekoak. Etxebizitza Saila arduratuko da etxebizitzak esleitzeko prozeduraz, eta honezkero aurreratu dituzte baldintza batzuk, Etxebiden indarrean daudenak, hain zuzen ere: Arrankudiaga-Zollon hiru urtez erroldatuta egotea, 3.000 eta 39.000 euro arteko diru sarrerak izatea, eta jabetzan etxebizitzarik ez izatea.

Jauregik azaldu zuenaren arabera 24 dira gaur egun Etxebiden izena emanda dauden Arrankudiaga-Zolloko eskatzaileak. Arrankudiaga eta Zolloko bizilagunek lehentasuna izango duten arren, etxebizitzaren bat esleitzen ez bada Arakaldo, Laudio, Ugao, Arrigorriaga eta Zeberioko eskatzaileek izango dute aukera, eta, ondoren, Bilbo inguruko gainerako bizilagunek.

Txutxi Ariznabarretak nabarmendu zuen bereziki gazteei zuzendutako proiektua dela honakoa: "Gazteek herrian errotzeko eskubidea dute, eta horretarako ezinbestekoa da etxebizitza eskubidea bermatu ahal izatea".

Bi erakundeek oso positiboki baloratu zuten elkarren arteko lankidetza. Txutxi Ariznabarreta alkateak oso positibotzat jo zuen prozesua: "Udal txikiak ohituak gaude ate asko jotzera, eta arreta gutxi jasotzera. Etxebizitza Sailera jo genuenean, segituan bideratu zuten gure eskaera, oso positiboa eta emankorra izan da lankidetza".

Bide beretik jo zuen Pedro Jauregi sailburuordeak ere: "Eskerrak eman behar dizkiogu Arrankudiaga-Zolloko Udalari etxebizitza arazoari irtenbidea bilatzeko erakutsitako prestutasunagatik".

Tokiko erakundeen eta Etxebizitza Sailaren arteko lankidetza balioan jarri zituen ere Jauregik: "Lurzoru eraikigarria duten udalen eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren arteko lankidetza estua bide egokia da etxebizitza eskuratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonei horretan laguntzeko, bereziki gazteei".

Ekinbide integrala

Aurkeztutako 10 zuzkidura-bizitoki eraikitzeko hitzarmena, azken hilabeteetan etxebizitzarekin erlazionatutako gainerako neurri eta proiektuekin erlazionatu zituen Txutxi Ariznabarretak agerraldian. Alde batetik, Garondo auzoan bertan etxebizitza-komunitarioa eraikitzeko lanetan dago Udala. Bestetik, udalerriko baserrien katalogoa, eta hauetan bizikidetza-unitate berriak sortzeko proiektua ere bultzatu dute. Hiru egitasmoak etxebizitza eskubidea bermatzeko proiektu integral beraren barruan kokatu ditu Arrankudiaga-Zolloko Udalak.

herriz herri

Amurrio

Agerraldia egin zuten iragan ostiralean Donostian, Galder Barbadoren aurkako jazarpena salatzeko. Gazte amurrioarrak kolaborazio eskaintza jaso zuen Guardia Zibilaren aldetik, eta azken asteetan etengabeak izan dira telefono deiak eta jarraipenak.

Galder Barbadok Guardia Zibilaren kolaborazio eskaintzak eta jazarpen etengabea jaso dituela salatu dute



Jazarpena salatzeko agerraldia egin zuten ostiral goizean Donostian. **Sortu**

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Galder Barbado gazte amurrioarrak azken astean Guardia Zibilaren aldetik jasotako jazarpena salatzeko agerraldia egin zuten iragan ostiralean Donostiako Sorturen egoitzan. Bertan izan dira Barbado bera, Ainize Gastaka Martinez abokatua eta Haimar Altuna Sortuko gatazkaren ondorioen konponbiderako arduraduna.

Espainiako Estatuko aparatuek "demokratizatu gabe" jarraitzen dutela salatu zuen Altunak, eta Espainiar Gobernuari exijitu zion pertsona guztien eskubide politiko eta zibilak errespetatzeko: "Ekin diezaiotela aparatuen demokratizazioari. Eten dezatela frankismoaren herentzia".

Kolaborazio eskaintza

Galder Barbadok jasandako jazarpenaren nondik norakoak azaldu zituen agerraldian. Duela hiru aste Guardia Zibilaren kontrol bateangelduzuteneta, Barbadoren hitzetan, "hasieran kontrol normal bat zena, iraganekoa beharko lukeen amesgaizto bilakatu zen eta kolaborazio eskaintza egin zidaten".

Gazteakazaldutakoarenarabera, "kontrolean ordu erdi geldirik egon ostean kamuflatutako bi auto agertu ziren, eta ia denek zuten aurpegia estalirik. Beraietako batek hitz egiten zuen soilik eta Harley ezizenarekin aurkeztu zuen bere burua". Harley izeneko Guardia Zibilak lehen kolaborazio eskaintza egin zion orduan, Barbadoren egoeraren jakitun zela, eta laguntza eskaini ahal ziola esan zion.

Barbadok uko egin zion Guardia Zibilaren eskaintzari, baina honek non bizi zen bazekiela gehitu, eta bi asteren buruan elkar ikusiko zutela esanez mehatxatu zuen. Aurreko astean, gazte amurrioarrak Harley delakoaren telefono deiak eta SMS bidezko mezu bat jaso zituen bere telefono pertsonalean, elkar ikusteko eskaintza berri bat eginez. Barbadok bakarrik ez, gaztearen lagunek ere jaso dituzte Guardia Zibilaren deiak Amurrioko gaztearengatik galdezka. Aste honetan bertan, gainera, kalez jantzitako poliziak atzetik jarraika izan dituela salatu du Barbadok agerraldian. Astelehenean, maiatzaren 16an gertatu zen hori: "Atzetik nuena polizia zela ikusterakoan kotxetik jaitsi eta berarengana joan nintzen herritik alde egin zezalaeta bakean uzteko eskatuz. Berak barre egin zuen, eta geldirik geratu zen denbora luzez ni joan nintzen arte".

Galder eta Aitorren kasua

2019ko otsailaren 7an, Ertzaintzak Galder Barbado gazte amurrioarra atxilotu zuen Entzutegi Nazionalaren aginduz. Arabako Dura herrian material lehergarriarekin aurkitutako zulo batekin erlazionatutako operazioa zela zabaldu zen segituan. Operazio berdinean Aitor Zelaia gasteiztarra ere atxilotu zuten. Bi gazte arabarrek sei hilabete igaro zituzten behin-behineko espetxealdian; Madrilgo Soto del Realen aurrena, eta Zaragozako Daroca espetxean gerora, Amurriotik 367 kilometrotara. 2019ko abuztuan baldintzapean aske geratu ziren Entzutegi Nazionalean egitekoa zen epaiketaren zain.

Atxiloketatik bi urte igaro ostean, 2021eko urtarrilaren 21ean eta 22an egin zen bi gazteen aurkako epaiketa Madrilgo Entzutegi Nazionalean. Jose Perals fiskalak (Altsasuko gazteen kasuko berdinak) zortzi urteko espetxe zigorra eta zazpi urteko baldintzapeko askatasuna eskatu zuen bi gazteentzat, material lehergarria helburu terroristekin gordetzea egotzita. Angela Murillo izan zen epailea, Bateragune kasua eraman zuen epaile bera.

Murillok lau urteko espetxe zigorra, urte bateko zaintzapeko askatasuna eta hamar urteko inhabilitazioa ezarri zien Barbado eta Zelaiari, "lehergarriak egiteko elementuak gordetzea" egotzita.

Defentsak helegitea aurkeztu zuen, Barbado eta Zelaiaren errugabetasuna aldarrikatu eta epaiaren baliogabetzea exijituz. Fiskaltzak ere berdina egin zuen, hasierako zortzi urteko espetxe zigor eskaria berretsiz.

Urte bat igaro da helegiteak aurkeztu zirenetik eta epaia egun batetik bestera atera daitekela ziurtatu du ANkerkeriari STOP plataformak. Hori dela eta, ugariak izan dira azken hilabeteetan abian jarritako elkartasun dinamikak. Bien bitartean, bi gazteen eguneroko bizitzak baldintzatua jarraitzen du.

herriz herri

Amurrio

Inhar Minguez Astorikaren kartelak iragarriko ditu Amurrioko Jaiak

Inhar Minguez *Entropia* izeneko kartelarekin. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Inhar Minguez Astorika gazte amurrioarrak irabazi du Amurrioko Jaien kartel lehiaketa. Astelehenean egin zuten sari banaketa La Casonan lehiaketara aurkeztu diren lan guztiak biltzen dituen erakusketa aretoan bertan.

Minguezek 'Entropia' izenarekin aurkeztu du bere lan irabazlea: "Fenomeno fisikoa da entropia, desordenerako joera. Jaietan ere, pertsonoi, antzeko zerbait gertatzen zaigula deritzot eta hori adierazi nahi izan dut kartelean", azaldu zuen Minguezek asteleheneko sari banaketan. Aipatu zuenez, oso eskertua zegoen saria jasotzeagatik: "Amurriokoa izanik, modu berezian bizi ditut jaiak, eta hainbatetan aurkeztu naiz kartel lehiaketara".

Epaimahaiak Minguezek erabilitako teknika eta proposamen berritzailea baloratu ditu saria ematerako orduan. Horrenbestez, Aurten gazte amurrioarraren sorkuntza lanak jantziko du jaien programazioko azala.

Programazioko kontrazalak Irune Barañano gaztearen marrazkia izango da, berak irabazi baitu kategoria horretako lehen saria. Sei urteko gaztea da Irune, eta bere marrazkian erakutsitako "talentu goiztiarra" izan da epaimahairen aldeko iritzia jasotzeko pisuzko arrazoietako bat.

Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak Amurrioko la Casonan egongo dira ikusgai, maiatzaren 27ra arte.

Tubacexeko jaiaren bazkari gonbidapenak eskuragarri daude jadanik

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Ekaineran 18an Tubacexeko langileen jaiak 500 laguni emango die bazkaltzen eta jadanik gonbidapenak lortzeko aukera dago. Txartelak Laudioko eta Amurrioko Kultura Etxeetan utzi dituzte antolatzaileek eta ohiko ordutegietan jaso ahalko dira. Ekainaren 11 izango da hori egiteko azken eguna. Helduentzako menua paella izango da. Umeentzat, aldiz, makarroiak eskainiko dituzte. Postrean euskal pastela aterako dute eta ohiko edariak egongo dira, kafeabarne. Adineznagusiak direnek bakarrik beharko dute gonbidapena, haurrek ez. Rakatapla taldeak prestatuko du otordua.

Ekainaren 18ko egitaraua hurrengoa izango da: Parkean 11:00etatik 13:30ak bitartean umeentzako jolasak egongo dira, Kirikino Aisialdi Taldeak antolatuta. 14:30ean herri bazkariaren ordua helduko da Matias Landaburu ikastetxe zaharreko jolastokian. Azkenik, Juan Urrutia plazan, Cuatro Bancos, Gwa Ya, Chiki Lora eta Aiaraldeko Sound System taldeek kontzertua eskainiko dute 21:00etatik aurrera.

Artziniega

Aurrera doa Artziniegako Kultura Etxea berritzeko proiektua

Artziniegako Udal Osko Bilkura. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Artziniegako Udal Osoko Bilkura egin zuten maiatzaren 11n. Hainbat gai onartu zituzten, horien artean Kultura Etxearen birgaitzea. Ordezkari politikoek ahobatez babestu zuten birgaitze proiektuaren hasierako onarpena. Eraikinaren berrikuntzak espazioak birgaitu eta irisgarriagoak egingo ditu, gainera, bigarren solairua gehitzeko asmoa ere badago.

Horretarako, Jon Azkoitia arkitekoaren proiektua izango dute oinarri. Birgaitzeak 1.200.000 euro inguruko kostua izango du, gaur onartutako proiektuaren arabera. Horri BEZa gehitu beharko dio Udalak. Tokiko Erakundeak Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Planaren barruan 484.812 euroko laguntza jaso zuen Kultura Etxea konpontzeko.

Behin lehenengo onarpenak argi berdea jasota, Arabako Foru Aldundiari dagokio proiektua aztertzea. Horren ostean, Artziniegako Udalbatzak bueltan onartu beharko du berriro.

Gai gehiago

Bestelako gaiak ere jorratu zituzten Udal Osoko Bilkuran. Hala nola Las Caserias inguruko kutxatilak Gordelizeko auzoko ur-horniketa sarera bajan konektatzeko obren gaineko zenbait kontu, edota Soxoguti inguruko bideen gaineko hainbat afera. Halaber, Tokiko Ekintza Iraunkor plana eta Tokiko Agenda 2030 sustatzeko akordioari babesa adierazi dio Udalbatzak. Udalak gai honekiko bere konpromiso aktiboa berretsi nahi izan zuen, bai eta Udal Sarea 2030 elkargoaren jarduera balioan jarri ere.

arrate
gestoria aholkularitza aseguruak
Utzi zure errenta 21 profesionalen eskuetan
Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com
Errenta-aitorpenaren plangintza gurekin egin ezazu.
20 urte baino gehiagoko esperientzia

FAKTO-RIA

URTEURREN

festa!

Erdu
#AmestekoFaktoria
ospatzera!

Adin guztietarako egitaraua!

Sarrera librea

Ekainak 25, zapatua

12:00etan
FAKTORIAREN IREKIERA

12:30ean
ESKUALDEKO HERRIEN ARTEKO OLINPIADAK

12:30ean
HAURRENTZAKO JOLAS GUNEAREN ETA GURPIL ZIRKUITUAREN IREKIERA

14:30ean
HERRI BAZKARI AGROEKOLOGIKOA
Izen-emateak: www.faktoria.eus webgunean

16:00etan
Faktoriako gereziondoaren landaketarako kalejira eta ipuin kontalaria, NEREA IGLESIASEKIN

16:30ean
Dantza-plaza, ZUZTERRAK taldearekin

18:00etan
Erromeria, BERANDUEGI taldearekin

21:00etan
DJ-ak, DANTZETAN JARRAI bikotearekin

Aiaraldea Ekintzen Faktoria
Errotari kalea 4-8, Laudio
www.faktoria.eus
688 647 942
faktoria@aiaraldea.eus

Laudio

Nerbioi Ibaia uholdeen kontra babesteko proiektua osatu dute Laudioko Udalak eta Ura Agentziak

Nerbioi Ibaia Laudion urak gainezka eginda. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Nerbioi ibaian uholdeen kontrako proiektua egitea hitzartu du Laudioko Udalak Ura Agentziarekin. Proiektuak 4,7 milioi euroko kostua izango du, eta lanek 17 hilabeteko iraupena izatea aurreikusi dute. Obraren % 100 URA Agentziak ordaindu du.

Nerbioi ibaiaren ibilgua sakonduko dute esku hartzean, eta hondoa metro bat beheratuko dute, uholdeak ekiditeko asmoz. Baias kalearen aldamenetik hasiko dute esku hartzea, San Juan errekak eta Nerbioi ibaiak bat egiten duten lekuan, hain zuzen ere. Gaur egun obrak egiten ari dira bertan, San Juan erreka uholdeengandik babesteko. Lanek Aretako bide zaharretaraino arte izango dute eragina, 1338 metro guztira, ibai tarte guzti hori uholdeengandik babesteko. Proiektua onartuta dago honezkero eta lizitazioa abiatu berri dute. Ander Añibarro alkateak uste du lanak abian egongo direla urte amaierarako.

1983ko uholdeen ostean ibaiaren ibilgua ahokatu egin zen, berriz gainezka egitea ekiditeko. Garai hartan hartutako neurriak osatzera datoz oraingo obrak.

Bilera herritarrekin

Maiatzaren 17an, Laudioko Udalak eta URA Uraren Euskal Agentziak bilera egin zuten, Kultura Etxeko Arraño Aretoan herritarrei azaltzeko zer nolako eragina izango duten lanek. Izan ere, mikropiloteak instalatuko dituzte etxebizitzen inguruko ertzetan, lursaila sendotuko dela bermatzeko.

JUAN CARLOS PINEDO
APAIZA

Apaiz maitatuak, herritik ateratakoak eta herrirako

Iragan maiatzaren 20an, ostirala, Laudioko Cosecha del 48 kultura elkarteak ametsa bete zuen: bost apaiz omentzea, zeinek euren alde onena eman duten herriaren alde.

II. Kontzilio Vatikanoak, gure apaiz bidea hasi genuenean egin zena, bultzatu gintuen gureak egitera alboan genituen emakumezko eta gizonezkoen poztasunak eta penak, atsekabea eta itxaropena.

Guretzat ezin zen arrotza izan gizatasunaren edozein alde eta arreta berezia jarri behar genien txiroei eta abandonatuei.

Apaiz hauek guztiek, 80 urtetik gorakoek, bete izan dute euren eginkizuna eta atzo omenaldi hunkigarria eskaini nahi genien herriaren partetik, Laudio herri eskertua eta memoria duena baita. Atzo apaiz horiei "eskerrik asko" esan zien taldeko kideak garela sentitzen dugu.

herriz herri

Artziniega

Josu Erkoreka babestu du Ertzaintzak 'Mozal Legea' baliatzea Tubacexeko grebalarien kontra

Testua
Aitor Aspuru Saez

Naiz hedabideak jaso duenez, EH Bilduko legebiltzarkidea Josu Arzuagak Tubacexeko grebalariei jarritako isunen gaia eraman du Eusko Legebiltzarrera. Zehazki, Arzuagak hiru galdera egin dizkio Josu Erkoreka Segurtasun Sailburuari. Alde batetik, aretarrak itaundu du zergatik Ertzaintzak baliatzen duen 'Mozal Legea' deiturikoa, aintzat hartuta Eusko Legebiltzarrak adierazpena egin zuela 2016an tresna hori ez erabiltzeko. Erkorekak erantzun du Ertzaintzaren betekizuna dela segurtasuna, eskubideak, askatasunak eta ondarea babestea eta horretarako existitzen diren legeak dituela bere esku, besteak beste, 'Mozal Legea'. Horrez gain, legearen erabilera arbiatrarioari buruz mintzatu da Arzuaga -langile bati isuna jarri diote bere etxeko atarian egoteagatik, adibidez- eta Sailburuak argitu du berari ez dagokiola hori baloratzea eta horretarako daudela helegiteak.

Edonola ere, Eusko Jaurlaritzako kideak erantsi du isunak ez direla greba egiteagatik izan, baizik 'Mozal Legeak' jasotzen dituen ekintza zehatzen ondorioz, esaterako, Ertzaintzaren aginduak ez betetzeagatik. Adibidez, iazko ekainaren 17an gertatutako atxiloketa eta istiluak horregatik gertatu zirela argudiatu du Erkorekak. Arzuagak ere galdetu du zergatik heldu diren isunak greba bukatu eta hilabete batzuetara, eta Ertzaintzaren arduradun politikoak azaldu du legeak berak adierazitako ohiko prozedura jarraitu dela; 6 hilabete arau hauste arinen kasuetan eta urtebete kasu larrietan.

Bisita antzeztuak Artziniegara eta Laudiora itzuliko dira maiatza amaieran, ekainean eta uztailean

Testua
Aitor Aspuru Saez

Artziniega eta Laudioko historian edota ondarean oinarritutako doako bisita gidatuak eskainiko dituzte berriro, igandetan. Zehazki, Artziniegan maiatzaren 29an, ekainaren 5ean, 12an eta 19an eta uztailaren 10ean egingo dituzte 12:00etatik 13:30ak arte. Laudion, ordea, uztailaren 3an eta 17an izango dira, saio bikoitzetan, 11:30etatik 12:15ak arte eta 13:00etatik 13:45ak arte.

Artziniegan jarduerak frontoian hasiko dira eta Laudion Lamuza parkean. Gazteleraz izango dira saio gehienak, baina euskaraz ere ikusteko aukera egongo da. Plazak mugatuak direnez, izena eman beharra dago aurretik Amurrioko Turismo Bulegoan, Laudioko Herritarren Arreta Zerbitzuan edo Internet bidez.

Arimaktore taldeko antzezleak eskualdeko herrietako pertsonaien azalean sartuko dira. Encina Castresana Aiarako Kuadrillako presidenteak aipatu du eskaintza honekin turismo ekintza erakargarriak proposatu nahi dituztela.

Aiara

Aiarako Udalak ustelkeriaren kontrako plana onartu du

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiarako ordezkari politikoek oniritzia eman diote udalbatzan iruzurraren, ustelkeriaren eta eroskeriaren kontrako plan politikoari. Arau hori ardatz izango da udaleko kide ororen jokaeran interes gatazkak ekiditeko. Horrela, tokiko erakundean lan egiten duten pertsona guztiek hirugarrenen interferentzia edo eragin oro saihestuko dute, haien inpartzialtasuna, osotasuna eta objektibotasun profesionala arriskuan ez jartzeko. Gentza Alamillo alkateak horrela azehaztu du: "Ordezkari politikoek, udallangileez gain, ezin izango dugu onartu, ez zuzenean ez zeharka, oparirik edo onura pertsonalik, ordainketarik, komisiorik edo bestelako onurarik lan profesionalaren esparruan, ezta hirugarrenekiko harremanetan edo Udalarekin edozein motatako harremana ezarri nahi dutenekin ere, baldin eta harreman komertzial, profesional edo administratiboetan, publiko zein pribatuetan, eragin desegokia badute".

Horrez gain, dietei ere erreparatuko diete eta ez dira onartuko behar bezala justifikatuta ez dauden edo onartutako neurrien planean jasotako printzipioetara egokitzen ez diren otordu eta joan-etorri gastuak.

Orozko

Alaitz Aramendiren egoera salatzeko agerraldia egin zuten maiatzaren 21ean. Orozkoarrari aplikatutako 7/2003 eta 7/2014 salbuespenezko legediak “bizi osorako zigor” direla adierazi dute.

Alaitz Aramendi “bizi osorako espetxe zigor” batera kondenatuta dagoela salatu du Sarek Orozkon

Joseba Azkarraga Sareko bozeramailea eta Alaitz Aramendiren senideak preso orozkoarraren egoera salatzeko agerraldian. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Alaitz Aramendi euskal preso orozkoarrak bizi duen egoera salatzeko agerraldia egin zuen iraganlarunbateanSarekOrozkoko frontoian. Bertan izan zen, besteak beste, Joseba Azkarraga Sareko bozeramailea. “Bizi osorako zigorrik ez! Alaitz etxera” lelopean 7/2003 eta 7/2014 legeen aplikazioen ondorioz sortutako egoera salatu zuten.

Aramendi 7/2003 legearen aplikazioaren ondorioz 40 urteko espetxe zigorra betetzen ari da. Kondena "bizi osorako espetxe zigor" bezala deskribatu zuten. "Salbuespenekoa den legedi baten barruan epaitu eta zigortu dute Alaitz, espetxealdi amaigabe batera kondenatuz, honek dakartzan kalte psikologiko eta fisikoekin", adierazi du Azkarraga bozeramaileak.

7/2003 legedia ez ezik, 7 /2014 legedia ere aplikatu zaio Alaitz Aramendiri. Ondorioz, Frantziar Estatuko presondegietan igarotako espetxealdia ez zaio kontabilizatuko, eta osorik bete beharko ditu Auzitegi Nazionalak ezarritak0 40 urteak.

"Alaitzek 13 urte bete ditu Frantziako kartzeletan eta Europar Batasunak ezarritako arauen arabera, Europako zigor epaitegi ezberdinetan ezarritako zigorrak baliokideak izan beharko lirateke, hau da, Alaitzek Frantzian betetako zigorra ezingo luke berriro ere Espainian bete", adierazi zuten Orozkoko plazan egindako agerraldian.

Aramendi bezala, beste 50 euskal preso egoera berdinean daudela salatu du Sarek: "Azken urteetan pozgarriak eta esperantzagarriak diren hainbat urrats eta aldaketa ikusten ari bagara ere, oraindik salbuespenezko neurriak ezartzen zaizkie euskal presoei eta horixe da Saretik behin eta berriro salatzen ari garena".

Aramendi 7/2003 legearen aplikazioaren ondorioz 40 urteko espetxe zigorra betetzen ari da; 7 /2014 legediaren aplikazioaren ondorioz, ordea, Frantziar Estatuko espetxe urteak ez zaizkio kontabilizatuko

Emakume izateagatik, gainera, Aramendik "espetxe-zigor bikoitza" jasan behar duela nabaremendu dute ere: "Emakume izateagatik, zigorra are gogorragoa da, epai judizialaz gain, espetxe sistema patriarkalaren barruko epaimorala eta gizonentzat soilik prestatuta dauden espetxe azpiegiturei aurre egin behar baitie".

Mobilizazioak

Gaia salatzeko, 'Bizi osorako zigorrik ez! Alaitz etxera!' lelopean, hainbat mobilizazio eta ekintza egingo dituela iragarri zuen Sarek larunabteko agerraldian. Aiaraldeko bizilagunei dinamikan parte hartzeko deia luzatu zieten bertan.

14 urte espetxean

2007an atxilotu zuten Aramendi, eta 2013an epaitu zuen Pariseko Auzitegiak. “Erakunde terroristako” kide izatea egotzi zioten. Renneseko espetxean igaro zuen orozkoarrak frantziako espetxealdiko azken urtea. Aurretik Roanne, Bapaume edo Fresenesen ere egon zen, Orozkotik 800 kilometrotara, bataz beste.

2021eko urtarrilean, Frantziar Estatuko kondena osorik bete ostean, Espainiar Estatura eraman zuten Aramendi. Auzitegi Nazionalak 2017an ezarri zion 535 urteko zigorra, 2005ean Madrileko San Blas auzoan lehergailu batjarri izana egotzita, horrenbestez 40 urteko zigorrari aurre egiten ari da.

Azken urtea Avilako espetxean eman du preso, Orozkotik 400 kilometrotara. Espetxe Erakundeek irailaren 29an iragarri zuten Aramendiren gerturaketa, beste zortzi euskal preso polikorekin batera.

argazki erreportajea

Txakolin Egunaren XXIII. edizioa ospatu zuten iragan maiatzaren 22an Amurrion. Sargoriak ez zituen herritarrak gelditu, eta ehunka izan ziren 2021eko uztaren emaitzak dastatzera parkean kokatutako jai-eremura bertaratu ziren herritarrak.

Sargoriari aurre egiteko plan bikaina eskaini zuen Txakolin Egunak

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Pandemiak eragindako zailtasunen ondoren, maiatzaren 22an Txakolin Egunak jendez bete zuen Amurrio berriro. Hasteko, Maite Eskarmendi kazetaria izendatu zuten Arabako Txakolinaren enbaxadore, bere kalitatearen mezulari izan dadin Euskal Herri osoan. Eskarmendik eskerrak eman zituen eta gero txupina jaurti zuen jarraian.

Uztaren nondik norakoak aletu zituzten Arabako txakolingileek, Mariano Alava Arabako Txakolina Elkarteko presidentearen bidez. 2021eko uztak %37,5 egin du behera, maximo historikoetan kokatu zen 2020ko uztarekin alderatuz. Ekoizleek, ordea, nabarmendu zuten kalitate handiko ardoak direla jatorri deitura osatzen duten upategiek merkatura atera dituztenak.

Hasiera ekitaldiaren ostean, gastronomian oinarritutako eskaintza izugarri zabalaz gozatzeko aukera izan zuten Amurrion elkartutako milaka herritarrek. Elexalde kalean artisauak ere ez ziren falta izan eta Erruki erromeriak itxi zuen jaia, 17:00etatik aurrera Amurrioko Parkean eskaini zuen kontzertu jendetsuan.

argazki erreportajea

erreportajea

‘Amaren Etxea’, Laudioko emakumeen babeserako giltza

La Familia inventadako kideek Gardeako apaiz etxea emakumeentzako espazio bilakatzeko proiektua sortu dute. ‘Tu idea cuenta, Alava emprende’ lehiaketako finalisten artean dago egitasmoa. Aste honetan jakinaraziko dute irabazlea.

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Amaren Etxeak beti eskaini izan dio edonori babesa eta ziurtasuna. Hain zuzen, hori da lortu nahi duena La Familia inventada kolektiboak. Horretarako proiektua sortu dute, eta Arabako ekintzaileen ideien lehiaketako finalera iristea lortu dute gainera: aurreko astean aurkeztu zuten egitasmoa Europa Jauregian, eta aste honetan argituko dute ekimen sariduna.

Edozelan ere, ‘Amaren Etxea’ zabaltzeko gogo bizia du Susanak, eta aurreratu duenez, hiru zutabe edo oinarri izango ditu: “Batetik, belaunaldiartekotasunerako topaleku izatea nahiko nuke, jendearen topalekua”. Bestetik, arreta zerbitzua eman nahiko luke, edozein emakumerentzako laguntza edo aholkularitza. Azkenik, behin-behinean etxebizitza premia duten emakumeentzat bizitoki puntuala jarri nahi du bertan. 2018an otu zitzaion ideia, eta tokia ere argi dauka: Gardeako apaiz etxea (Laudio).

La Familia inventadakoen esanetan, lau urte daramatzate proiektuarekin bueltaka. “25 urte baino gehiago egon da eraikin hori hutsik”, erantsi dute kideek. Jabetza, baina, Alokabiderena da uneotan, eta eurekin harremanetan daude bideari segida emateko: “Posta elektronikoz bidali zizkiguten egin beharreko pausoak, eta eskaera aurkeztua dugu jada, erantzunaren zain gaude”.

Bien bitartean, proiektua ezagutarazteari ekin diote. Laudioko Udalarekin izan dira, eta, azpimarratu dutenez, “berdintasun zinegotzia Gasteizko lehiaketako aurkezpenera etorri zen babesa adieraztera”.

Lau urte daramatzate proiektuarekin bueltaka. “25 urte baino gehiago egon da eraikin hori hutsik”, erantsi dute kideek. Jabetza, baina, Alokabiderena da

Apaiz etxea, ahizpen etxe

Gardeako elizaren aldamenean dago kokatua ‘Amaren Etxea’ bilakatu asmo duten gunea. Eraikinak bi solairu ditu: “Beheko solairuan bulego bat dago, eta sukaldea. Horrez gain, hiru logela eta komuna ere baditu”. Funtsean Arreta bulegoa, topalekua eta etxebizitza eskainiko ditu espazioak. “Emakume Etxe gisa ezagutzen ditugun proiektuen aldean, etxebizitza premia jakina eta behin-behinekoa duten

emakumeei eman nahi diegu babeslekua", erantsi du sustatzaileak.

Denbora luze darama proiektua mamitzen "eta etxe horren atzetik". Izan ere, etxea erakutsi ziotenean, berehala ikusi zituzten jendartearen beharrezkotasuna eta aukera: "Horrenbeste gela ikusita, zoragarria iruditu zitzaidan eraikina, baita beste emakume batzuekin partekatzeko aukera ere".

Emakumeentzako espazioa izatea nahi dute 'Amaren Etxea' La Familia inventadakoek. "Eta emakumeen artean egina. Gune eta espazio irekia izatea gustatuko litzaidake, edonola eta edonoiz etorrita ere, arreta eta babesa jasotzeko tokia. Kasu horretan ni izango nintzateke, gizarte hezitzailea gisa".

Arazorik edo arrazoirik ez da beharko bertaratzeko, zehaztu duenez, "berdin du liburu bat idazteko 10 egunerako etxe bat behar izatea, edo banaketa zein bestelako prozesu mingarriren batean egotea".

2018an jarri zituen lehen oinarriak: "Etxea ikustean piztu zitzaidan argia. Banatu egin

Arreta bulegoa, topalekua eta etxebizitza eskainiko ditu espazioak. "Emakume Etxe gisa ezagutzen ditugun proiektuen aldean, etxebizitza premia jakina eta behin-behinekoa duten emakumeei eman nahi diegu babeslekua"

nintzenean, jende asko etortzen zitzaidan galdezka edo laguntza eske; horregatik pentsatu nuen ideia bikaina zela Amaren Etxea". Gainera, bultzatzailearen aburuz, Gardea auzoak zerbitzu mordoa ditu urrun bezain gertu, "inspirazio edo babesgune izateaz gain bi minutura denetarik dago, eta sekulako lasaitasuna dago era berean".

Gauzak ondo bidean, Lanbideren baiezkoa jaso "eta ahal bezain pronto" jarri nahiko luke martxan gunea. "Drumgorri, Faktoria, Gardeako gizarte etxea... sarea zabaltzen joango gara, datozen emakumeei laguntzeko. Esaterako, Osakidetzatik ere hona gonbidatzea gustatuko litzaiguke: komunitatearekin elkarlanean komunitatearen proiektuak sustatzea".

Aipamena, sari

Pozik jaso zuen La Familia inventadako Susanak Arabako ideien lehiaketan finalerako hautagai izatea, "saria anekdotikoa izan daiteke, edo akaso ateak irekiko dizkigu, nork daki. Jendearen interesa, behintzat, piztu du". Gizonezkoak

"Saria anekdotikoa izan daiteke, edo akaso ateak irekiko dizkigu, nork daki. Jendearen interesa, behintzat, piztu du"

ere hurbildu zaizkio galdezka. "Mutilei bikote, arreba edo inguruko emakumeei babesa emateko espazioak errespetatzera dei egin genieke; ez ditugu gizonezkoak baztertu nahi".

Alabaina, argi utzi du emakumeentzat soilik izango dela espazioa. Bidelagun gisa, baina, herritar orori luzatu dio ekimenarekin bat egiteko deia.

Zernahi gisaz, bakardadeari ateak itxi nahi dizkio ekimenaren bidez: "Bakardadea arazo handia da. Asko gaude ahizpatasun babes premian, edota kafe bat hartzeko gogotsu. Bakardadea pandemia ikusezina da, eta horren aurrean, ederra litzateke Amaren Etxeak irekitzea auzo edo herrietan".

Etorkizunari begira jarrita, Herrialde Katalanetara ere hedatu nahiko luke proiektua, Amaren Etxea diseinatzean ez baitu beste eredu edo erreferenterik topatu eta. Apaiz etxea ahizpen gune bilakatu artean, beraz, informazio gehiago eskuratu nahi duenarentzat postontzia izango du La Familia inventadak zabalik: amatxeagardea@gmail.com.

Gardeako elizako apaiz-etxe zaharrean dago kokatuta proiektua. **Aiaraldea.eus**

elkarrizketa

KEPA VALLEJO (Urduña, 1982) ATAXIA-TELANGIEKTASIA DIAGNOSTIKATUTA DUEN HODEI GAZTEAREN AITA DA. GAIXOTASUN ARRARO HAU IKERTZEKO DIRUA BILTZEKO LANEAN ARI DA **AITOR LANSEROS** (Urduña, 1983) ETA **IÑIGO SANTOCILDES** (Urduña, 1975) LAGUNEKIN BATERA, I. AEFAT ELKARTASUN FESTIAN.

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Ataxia-telangiektasia duen Hodei, Artomañako gaztea laguntzeko jaialdia antolatu duzue. Nondik sortu zen horrelako ekimenak egiteko ideia?

Aitor: Nereak, Hodeien amak, semearengatik zerbait antolatu behar zela aipatu zidanean abiatu zen abentura hau. Nik zalantza gabe baietz esan nion, familiako laguna nintzen aspalditik eta. Mikel Landa eta Unai Simonen kamiseta banarekin hasi zen guztia: 2.000 txartel atera genituen horiek zozketatzeko eta segituan sortu zitzaizkigun ideia berriak, eta laguntzeko prest zeuden herritar gehiago hurbildu ziren. 2019an Antzinako Andra Mari ikastetxean ginkana eta jaialdi bat antolatu genituen diru gehiago lortzeko. Azken jaialdi horretan erabaki genuen zerbait handiagoa egitea, hor sortu zen I. elkartasun festia antolatzeko asmoa.

Iñigo: Pandemiak dena eten zuen. Guk gure asmoei eutsi egin genien, eta, oraingoan bai, jaialdia egiteko moduan gaude.

Zer da prestatu duzuen programazioa?

Aitor: Ekainaren 24an, ostirala, hasiko dugu egitaraua. SpiderAbel Gasteiztik abaituko da korriak, Euskal Herrian dauden ataxia-telangiektasia bi kasuak sinbolikoki lotuz. Behin Artomañara iristean, harrera egingo zaio eta azken kilometroak batera egiteko aukera egongo da. Foru Plazan lekukoa hartuko diogu SpiderAbeli, eta jaialdia hasiko da ofizialki Erauntsi dantza taldearen agurrarekin. Iluntzean jai-eremua zabalduko dugu autokarabanen aparkalekuan. Lehenengo gauean Moonshine Wagon eta Reincidentes arituko dira oholtzan.

Larunbatean egun osoko egitarauaz gozatzekomaukera egongo da Foru Plazan: Tortilla lehiaketa, haur jolasak buruhandiak... Kontzertuei dagokienez: ETS, Dj Turru eta Modus Operandi taldeek girotuko dute gaua.

Iñigo: 2.800 lagunentzako tokia dago jai-eremuan, espero dugu ahalik eta sarrera gehien saltzea. Bi karpa handi jarriko ditugu, txosna eta afaltzeko tokia.

Tren bereziak jarriko ditu Renfek, jendeari etorrera errezteko. Guk ez dugu eskarmentu handirik ekimen handiak antolatzen baina ilusioa eta gogoa ez zaizkigu falta.

elkarrizketa

“Izugarria da Aiaraldean Ataxia-telangiektasiaren ikerketaren alde egiten ari den guztia”

“Gaixotasun neurodegeneratibo oso arraroa da ataxia-talangiektasia, oso kasu gutxi ezagutzen dira”

Ataxia-telangiektasia diagnostikatuta duten lau pertsonen familiak etorriko dira jaialdira ere, asteburu eder batez gozatzeko aukera izango dute.

Non eskuratu daitezke sarrerak?

Iñigo: AEFAT elkartearen webgunean bertan daude eskuragarri. Egun bateko sarrera edo bi eguneko bonoa erosi daitezke. “0. ilara” deitu dugun aukera bat ere jarri dugu jaialdira etortzeko aukerarik ez baina ekarpen ekonomikoa egin nahi duten horientzako.

Zu Kepa Hodeiren aita zara, ataxia-telangiektasia diagnostikatuta duen bost urteko gaztea. Zertan datza gaixotasun arraro hau?

Kepa: Gaixotasun neurodegeneratibo oso arraroa da ataxia-telangiektasia, oso kasu gutxi ezagutzen dira: 2 Euskal Herrian eta 30 bat Espainiar Estatuan. Egonkortasuna gogor kaltetzen du, eta denborarekin defentsak ere asko ahultzen ditu. Horren ondorioz arrisku handiagoa dute gaixotasun larriak bereganatzeko; hala nola, minbiziak.

Proteina baten faltak sortzen du, eta gutxika gutxika itzaliz doaz hau sufritzen dutenak. Ez dago inolako sendabiderik, horregatik lortzen den diru guztia ikerketara bideratzen da.

“Sarrerak AEFAT elkartearen webgunean bertan daude eskuragarri. Egun bateko sarrera edo bi eguneko bonoa erosi daitezke. ‘0. ilara’ deitu dugun aukera bat ere jarri dugu”

Zer nolako garrantzia dute ekainaren 24 eta 25a bezalako egunek?

Kepa: Oso garrantzitsuak dira guretzat ekimen guzti hauek. Alde batetik dirua biltzeko, eta bestetik gaixotasun arraro hau jendarteratu eta familiok bizi duguna mundu guztiari kontatzeko.

Guk asko eskertzen ditugu horrelako keinuak. Hasieran asko kostatzen zitzaigun publikoki azaltzea gisa honetako ekimenetan, oso gai delikatua da.

Eta zuek, ataxia-telangektasia diagnostikatuta duen gazte baten familiaren hurbilekoak izanda, zer ekarpen egiten duzuela uste duzue?

Aitor: Izugarria da nik uste. Hasieran Nagore eta Kepari asko kostatzen zitzaien ekintzetara bertaratzea. Normala da; ez zuten semea arretaren-erdigune izatea bereziki gustoko. Guk ere oso gertutik bizi dugu familiaren mina, guretzat oso garrantsitzua da laguntzea. Hasierako unetik esan nien euren aldamenean egongo nintzela edozer egiteko prest.

Zer nolako harrera izan dute AEFATen aldeko ekimenek?

Aitor: Herrera oso ona izan da ekintza guztietan, antolatu ditugun aurreko bi ekimenetan (kamiseten zozketa eta Antzinako Andra Mari ikastetxeko jaialdia) ia 10.000 euro bildu ditugu. Mundu guztia dago laguntzeko prest: elkarteak, komertzioak, norbanakoak, Udalak... ezin gara kexatu izugarria izaten ari da erantzuna. Erauntsi dantza taldearekin ekimen txiki bat egin genuen duela hilabete batzuk eta Gazte Asanbladako kideak ere izugarri ondo portatu dira gurekin; Kintoetako txosnako diru guztia elkarteari bideratu diote.

Ataxia-telangiektasia gaixotasun berria da eskualdean, Hodei da lehenengo kasua, baina nork edo nork entzun izan du honen inguruan, lan ona egin da errealitate hori sozializatzeko. AEFAT elkartetik txundituta daude Aiaraldean ekimen desberdinek duten harrerarekin.

AIARALDEA GAUR

agenda

2022/05/25
2022/06/08

Amurrion 10 emanaldi eskiantzeko prest da

Gure Zirkua ikuskizuna

Astelehenean ekin zioten Gure Zirkua muntatzeari Amurrion. Durangon hasi dute aurtengo denboraldia, eta Araba izango dute hurrengo geldialdi. Aiaraldera etorriko dira lehenbizikoz, gainera. Hain zuzen, Amurrion kokatuko dute euskarazko zirkua eta karpa datozen egunetan, Bañuetaibar kaleko landan, osasun zentro ohiaren aldamenean. Hala, maiatzaren 27tik ekainaren 5era bitarte 10 saio egingo dituzte.

Euskarazko zirku bakarra da Gure Zirkua. 2017an sortu zuen Iker Galartzak, beste zenbait kiderekin batera. Geroztik, hamaika herri zeharkatu dituzte euren karpa, karabana eta ikuskizunarekin.

Aiaraldea komunikabideak emanaldi baterako 2 sarrera bikoitz zozkatuko ditu erabiltzaileen artean maiatzaren 31n.

Trapezistak, malabaristak, magoa, pailazoak, dantzariak zein zuzeneko musika uztartzen ditu emanaldiak. Sarrerek 13 euro balio dute, eta gurezirkua.eus atarian eskura daitezke.

Ondorengoak izango dira ikuskizun egunak eta orduak: Maiatzak 27, ostirala, 19:00etan; maiatzak 28, larunbata, 16:30ean; maiatzak 28, larunbata, 19:00etan; maiatzak 29, igandea, 18:00etan; ekainak 3, ostirala, 19:00etan; ekainak 4, larunbata, 16:30ean; ekainak 4, larunbata, 19:00etan; ekainak 5, igandea, 12:00etan; eta, azkenik; ekainak 5, igandea, 18:00etan.

Honezkero, gainera, bada sarrera guztiak agortu dituen emanaldi bat; igande honetan -amaitzak 29- 12:00etan eskainiko dena.

MUSIKA

05.27 Ostirala
20:00 AMURRIO
SARRABATE
Folk musika taldea
Amurrioko Parkea

05.28 Larunbata
13:30 AMURRIO
KANTU POTEOA UGARTE OTXOTEAREKIN
Juan Urrutia Plaza

05.28 Larunbata
20:30 LAUDIO
DENTELLADA, CEREBRAL EFFUSION, SOBERSUCKS ETA ISSUNA
Orbeko Etxea

05.28 Larunbata
22:00 AMURRIO
IRATZAR ERROMERIA
Amurrioko Parkea

05.29 Igandea
11:00 LAUDIO
EKIN JOLEAK
Kultudaberria programaren barruan
Herriko kaleetan zehar

05.29 Igandea
15:30 LAUDIO
LOTXO ERROMERIA
Ermualde

05.29 Igandea
19:00 LAUDIO
LAUDIOKO MUSIKA BANDA ETA LAUDIOKO GAITEROAK
Aldai Plaza

FAMILIA JARDUERAK

05.25 Asteazkena
17:00 ARTZINIEGA
IPUIN TXIKIAK: "SUA GUSTUKO EZ ZUEN HERENSUGEA"
Liburutegia

05.28 Larunbata
11:00 ARRANKUDIAGA
IPUIN ETA JOLAS EZ-SEXISTAK
Eskolan eta frontoian

05.30 Astelehena
12:00 LAUDIO
ZIRKU, OREKA ETA MALABARE TAILERRA
Ermualde

05.30 Astelehena
15:30 LAUDIO
DISKODANTZA, "DANTZATZEKO PREST!"
Ermualde

05.27 Ostirala
18:00 LAUDIO
TOR MAGOA
Kultudaberria programaren barruan
Lamuza Parkea

05.27 Ostirala
19:00 AMURRIO
ANTZERKIA: ANARKIA RELACIONAL
LGTBQA+fobiaren kontrako jardunaldien barruan
San Anton Plaza

05.28 Larunbata
12:00 AMURRIO
AIARA DANTZA TALDEA
Euskal Jaiko egitarauaren barruan
Amurrioko Parkea

05.29 Igandea
18:00 LAUDIO
ONGI ETORRI FESTA
Amaury Santa Cruz taldearekin
Laudio Fabric Café

06.04 Larunbata
18:00 LAUDIO
"LA CENA DE LOS IDIOTAS"
Oihalak Zabaltzen elkartearen antzezlana
Laudioalde Aretoa

HITZALDIAK ETA TAILERRAK

05.26 Osteguna
18:00 LAUDIO
NOLAKO ESKOLA PUBLIKOA NAHI DUGU?
Iñigo Salaberriak, Lurdes Imazek, Xabier Mendizabalek eta Ana Eizagirrek gidatutako hitzalida
Laudio Institutua

05.27 Ostirala
17:30 AIARA
SUKALDARITZA OSASUNGARRI ETA HURBILEKOA
55 urtetik gorakoentzako ikastaroa
Arespalditzako Gizrate Etxea

05.28 Larunbata
10:00 AMURRIO
SENDABELAR TAILERRA
Euskal Jaiko egitarauaren barruan
Amurrioko Parkea

05.28 Larunbata
18:00 LAUDIO
EUSKAL ZERAMIKA LAUDION
Blanca Gomez de Segura Euskal Zeramikako Museoaren zuzendariarekin
Kultur Etxea

Masa kritikoa
Amurrioko kaleetan zehar

Abenduan antolatu zen ekimen honen lehen edizioa Amurrion, eta geroztik hilabeteko lehen ostiral guztietan kaleak hartu dituzte txirrindulariek, herriko trafikoaren barruan bizikletek ere bere espazioa merezi dutela aldarrikatzeko. Hurrengo hitzordua ekainaren 3an izango da, "trafikoa gara!" lelopean. Txirrindulariak 20:00etan abaituko dira GUK eskulturatik; musika eta giro ona nagusi direla.

Maiatzaren 28an ospatuko dute, bi urteko etenaren ostean
Baserri azoka Okondon

Maiatzaren 28an ospatuko dute Baserri Azoka Okondoko bizilagunek. 2019an antolatu zuten azkenekoz azoka eguna, eta bi urteko etenaren ostean, egun osko egitaraua prestatu dute berriro ere. Animaliak, tokiko jakiak eta artisauak egongo dira, besteak beste, Okondoko herrigunean.

Datorren larunbatean 10:30ean zabalduko dute azoka esparrua, eskola eta parkearen inguruetan. Haurrentzako ekintza ugarik hartuko dute goizeko egitarauaren zati nagusia, egurrezko jolasak eta taloak egiteko tailerrak, besteak beste.

12:30ean batukada batek girotuko du herria eta azoka, eta 13:30ean herri-kirol erakustaldia eskainiko dute. Antzinako ogibideek ere tartea izango dute; saskigintza erakustaldia egingo baitute goiz osoan zehar. Egunari amaiera emateko, Xaiborrek dantzan jarriko ditu haurrak eta helduak, 16:30ean hasiko den diskofestarekin

Kartelera

AMURRIOKO NAGUSI ETXEA
Lloviendo piedras
MAIATZAK 25
ASTEAZKENA (Doan)
17:00

LAUDIOALDE ARETOA
La última película
MAIATZAK 28
LARUNBATA
(3 euro)
18:30

LAUDIOALDE ARETOA
Doctro Strange II
MAIATZAK 29
LARUNBATA
(3 euro)
17:30

AMURRIO ANTZOKIA
Canallas
MAIATZAK 29/30
IGANDEA/ASTELEHENA
(5/3,75 euro)
19:30/20:00

06.03 Ostirala
17:15 LAUDIO
LEZEAGAKO KOBAZULORA BISITA
Gurasolagun ekimenak antolatuta
Aretako ordaintokia

KIROL JARDUERAK

05.28 Larunbata
08:00 LAUDIO
SANTOÑARA TXANGOA
Goikogane Mendi Taldeak antolatuta
Laudio Institutua

05.28 Larunbata
08:30 AMURRIO
LEZE ARROILA JAITSIERA ETA AIZKORRI IBILBIDE ZIRKULARRA
Mendiko Lagunak Taldeak antolatuta
Telefonica eraikina

05.28 Larunbata
11:00 LAUDIO
SANTA LUZIAKO V. ERRONKA BERTIKALA
Altzarrate Elkarteak antolatuta
Ugarteko plaza

05.29 Igandea
08:00 URDUÑA
BARGAGAINERA IRTEERA
Txarlazo Mendi Taldeak antolatuta
Suhiltzaileak

05.29 Igandea
09:30 AMURRIO
EUSKADIKO BETERANOENTZAKO VI. ARKU TXAPELKETA
Refor kirolgunea

06.04 Larunbata
09:15 ARTZINIEGA
KIROL ALTERNATIBOEN I. TOPAKETAK
Frontoia

06.05 Igandea
10:00 LAUDIO
10K LAUDIO
Lasterketa herrikoia
Herriko Plaza

IKUSKIZUNAK

05.26 Osteguna
19:00 LAUDIO
OMBUAREN ITZALA
Pello Mari Otaño bertsolari buruzko filma
Faktoria

05.28 Larunbata
19:00 AIARA
GALEGOS NO EXERCITO DE EUZKADI 1936-1937
Liburu aurkezpena Sergio Balchada idazlearekin
Agiñiga

06.03 Ostirala
19:00 OROZKO
OROZKOKO ERMITEN LUMAMUTURREKO MARRAZKIEN ERAKUSKETA
Iñaki Garcia Uribek solasaldia eskainiko du
Orozkoko Museoa

05.26 Osteguna
14:00 OROZKO
MADRES MERCEDARIAS GREBAN
Elkarretaratzea Ibarran
Ibarrako egoitza

BESTELAKO JARDUERAK

05.28 Larunbata
10:00 OKONDO
BASERRI AZOKA
Okondoko Parkea

05.27 Ostirala
17:00 LAUDIO
LARRA BUZTINGINTZAREN ERAKUSKETA
Kultur Etxea

05.28 Larunbata
19:00 AMURRIO
PATXI ETA KONPAINIA
Dantza-plaza
Amurrioko Parkea

05.28 Larunbata
21:00 LAUDIO
ARINEKETAN DANTZAN
Kultudaberria programaren barruan
Herriko plaza

05.29 Igandea
12:00 ARTZINIEGA
BISITA ANTZEZTUAK
Artziniegako historiako mugarriak eta ondarea ezagutzeko
Toñin Luengas frontoia

05.29 Igandea
12:00 LAUDIO
ARTZAIN TXAKURREN ERAKUSTALDIA
Arate elkarteak antolatuta
Ermualde

INFO +
aiaraldea.eus

erreportajea

Aurreikusitakoa baino sei hilabete beranduago, pandemiaren eta eguraldi petralaren ondorioz, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak sustatutako jaiak Aiarako herririk jendetsuena beteko du euskarazko ekintzekin: kirola, musika, antzerkia, umeentzako jarduerak, bertsolaritza...

Ekainaren 4an Luiaondon ospatuko dute Aiaraldeko Euskararen Eguna

Iragan abenduan Luaiondon egindako agerraldia. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Euskaraktibatu Aiaraldea! leloarekin, eskualdeko euskalgintzak, Aiarako Udalak eta Aiarako Kuadrillak indarrak batuko dituzte ekainaren 4an Luiaondon euskara ardatz izango duen jaia antolatzeko.

Berez, egitaraua abiatuko da 11:00etan, baina giroa berotzeko oinez joatea proposatu dute Aretako Kultur Etxetik 09:00etan, Laudioko tren geltokitik 09:15ean eta Faktoriatik 09:25ean eta Amurrioko Iparraldeko geltokitik 09:30ean. Bizikleta erabiltzea nahiago dutenek bi aukera izango dituzte joateko; 09:00etan Urduñako Foru plazatik menditik joateko eta 10:00etan errepidetik egitea nahiago badute. Trenez garraiatzeko parada ere egongo da.

Ideia da 11:00etan Luaiondoko iparraldeko eta hegoaldeko sarreretan elkartzea eta ospakizunean buru-belarri sartzea. Izan ere, gune ugari eta eskaintza anitza prestatuko dituzte. Goizean saskibaloi eta futbito txapelketak, kultura azoka, umeentzako ekintzak (jolas zirkuitua, 0-3 urteko haurren gune gozoa, ginkana, puzgarriak, ohe elastikoa, betiko jolasak) eskainiko dituzte. Aiaraldea komunikabideak ere bat egingo du egitasmoarekin zuzeneko emanaldiaren bidez.

Eguerdian 'Tabernaria: Instrukzioak botatzeko ondo kaña bat' antzezlanaren bi saio egingo dituzte, 12:00etan eta 13:30ean. Patxo Telleria da ikuskizunaren gidoiaren egilea da eta Mikel Martinez aktorea protagonista. 12:00etan Euskararen Bila jolasa abiatuko dute eta12:30ean ikastetxeetan antolatutako bideo laburren lehiaketako sariak banatuko dituzte. Gauza bera egingo dute 13:30ean, baina kirol txapelketetan parte hartu duten taldeekin.

Mezua eta dantza

Egitasmoa artikulatu duen ekitaldia 13:00etan gauzatuko da. Bi elementu nagusi osatuko dute. Alde batetik, ekimenaren mezua. Bestetik, koreografiaren dantza, Izaskun del Cerroren parte hartzearekin.

Horren ostean, ekintzek astinduko dituzte berriro gune ezberdinak. Esaterako, 13:30etatik 16:00ak arte herri bazkaria gozatzeko tartea emango dute, 8 euroren truke.

Ilargi, Saltokan, Muganek, Xsakara, Izate Faltsua eta Nikotina taldeak arituko dira musika eskaintza borobiltzen

16:00etan gazteentzako ihes gelaren hiru saioei emango diete hasiera eta 18:15ean bertso poteoari ekingo diote, Julen Zelaieta, Izar Mendiguren eta Sustrai Colinaren kantekin.

15:00etan kontzertuak hasiko dira. Lehenik eta behin, Ilargi folk-rock taldearen txanda helduko da, gero Saltokan dantza plazak hartuko du oholtza 16:00etan eta 18:15ean Muganek pop-folk doinuak jarriko ditu 18:15ean. 19:30ean Xsakara artistak trap musika eramango du Luiaondora eta 20:45ean Izatefaltsuak talde aiaraldearrak metal kontzertua eskainiko du. Musika eskaintza borobiltzeko, Nikotinak rapa, reggaea eta dance-halla nahastuko du 22:00etan

MINTZATU KONTSUMITU INPLIKATU

EUSKARAKTIBATU! AIARALDEA

EKAINAK 4 LUIAONDO

IBILBIDEAK

BIDEGORRITIK

- ARETA 09:00 KULTUR ETXEA
- LAUDIO 09:15 TREN GELTOKIA ETA 09:25 FAKTORIAN
- AMURRIO 09:30 IPARRALDEKO GELTOKIA

BIZIKLETAZ

- URDUÑA FORU PLAZA 09:00 BTT ETA 10:00 ERREPIDETIK

TRENEZ

- ARRANKUDIAGA 10:15 TREN GELTOKIAN · 10:24KO TRENA
- ARAKALDO 10:15 TREN GELTOKIAN · 10:28KO TRENA
- ARETA 10:20 TREN GELTOKIA · 10:30KO TRENA
- LAUDIO 10:20 TREN GELTOKIA · 10:32KO TRENA
- URDUÑA 10:10 TREN GELTOKIA · 10:21EKO TRENA
- AMURRIO 10:15 TREN GELTOKIA · 10:27KO TRENA
- AMURRIOKO GELTOKIAN ETA 10:28KOA IPARRALDEN

AURTENGO KANTA DESKARGATZEKO QR KODEA!

EGITARAUA

KIROLA

11:00-13:00
3x3 SASKIBALOI ETA FUTBITO LEHIAKETAK*

13:30
KIROL LEHIAKETAKO SARI EMATEA

*AURREZ IZENA EMAN BEHARRA DAGO, INFO GUZTIA: WWW.AIARALDEKOEUSKALGINTZA.EUS

AIARALDEA ZUZENEAN

11:00ETATIK AURRERA
AIARALDEA GAUR HEDABIDEAREN ZUZENEKO EMANALDIA

EKITALDIA

13:00
EGUNEKO MEZUA ETA KOREOGRAFIAREN DANTZATZEA IZASKUN DEL CERRAREN PARTE HARTZEAREKIN

MUSIKA

15:00 ILARGI (FOLK-ROCK)

16:00 SALTOKAN (DANTZA-PLAZA)

18:15 MUGAN (POP-FOLK)

19:30 XSAKARA (TRAP)

20:45 IZATE FALTSUA (ROCK GOGORRA)

22:00 NIKOTINA (RAP-REGGAE-DANCE)

KALEJIRAK

11:00
KALEJIRAK IPARRALDEKO ETA HEGOALDEKO SARRERETATIK

BAZKARIA

13:30-16:00
HERRI BAZKARIA
TIKETAK 8€
TXOSNA ZERBITZUA EGONGO DA.

AZOKA

11:00ETATIK AURRERA
KULTUR AZOKA

*INFORMAZIO GEHIAGO: LABUR.EUS/AIEKE_AZOKA

ANTZERKIA

12:00-12:40 ETA 13:30-14:10
TABERNARIA: INSTRUKZIOAK BOTATZEKO ONDO KAÑA BAT*

*PATXO TELLERIAK IDATZITAKO OBRA, AKTOREA MIKEL MARTINEZ.

BERTSO POTEOA

18:15
JULEN ZELAIETA, IZAR MENDIGUREN ETA SUSTRAI COLINA

HAUR, NERABE, GAZTE JOLASERA!

11:00-13:00
JOLAS GUNEAREN IREKIERA
- KIRIKIÑOREN JOLAS ZIRKUITUA
- 0-3 URTEKO HAURREN GUNE GOZOA
- GINKANA
- PUZGARRIA
- OHE ELASTIKOA

11:30-13:00
BETIKO JOLASAK FAMILIAN (SOKA SALTOA, ZIBA...)

12:00 HERRIAN ZEHAR
EUSKARAREN BILA

12:30
BIDEO LABURREN LEHIAKETAKO SARI EMATEA (IKASTETXEETAKO IKASLEEK PARTE HARTU DUTE)

16:00
IHES GELA (3 TXANDA, IZEN EMATEA GOIZEAN IZANGO DA)

AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA

erreportajea

Duela 49 urte abiatu zuen bilduma Carlos Uzkianok. **Aiaraldea.eus**

Bidaia bat denboran atzera mundu osoko mila lisaburdinen eskutik

Ekainaren 26ra arte dago ikusgai Orduña Hiria Museoan Carlos Uzkianoren lisaburdinen bilduma. Duela 49 urte abiatu zuen Uzkianok bilduma; 15 urte zituenean Delikako baserrian izandako sutetik amaren lisaburdinak erreskatatu ostean. Pieza berriak eskuratuz joan da urte luzez eta, gaur egun, Europa mailako bildumarik onenetarikoa da, ia 1.200 lisaburdinez osatua.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

1973an erre zen Carlos Uzkianoren familiaren baserria, Delikan. Carlosek 15 urte zituen orduan. Suteak eragindako kaosean familiaren ondasunak etxetik ateratzen ari zirela, sukaldean zeuden amaren lisaburdinak garretatik erreskatatu zituen Carlosek. Ekintza instintiboa izan zen, horrela gogoratu du Uzkianok: "Inertziaz hartu nituen lisaburdinak, ez zegoen arrazoi zehatzik".

Ausaz egindako erreflexu ekintza hori Europa mailako lisaburdin bilduma handienen ernamunia izan zen. Nekez imajina zezakeen Uzkianok inoz milatik gora lisaburdin bilduko zituenik, eta are gutxiago zaletasunak munduko hainbeste txokotara hurbilduko zuenik. "Ondo gorde nituen baserritik erreskatatutako amaren lisaburdinak, eta bilduma handitzea erabaki nuen", gogoratu du Uzkianok. "Hasieran uste nuen 15-20 lisaburdin bilduta osatuko nuela nire kolekzioa".

Pieza berriak eskuratu ahala konturatu zen beste herrialde batzuetan ere bazirela lisaburdinak eta bazituztela bestelako berezitasunak; material, apainketa eta sistema desberdinak, esaterako. "Horrek bultzatu ninduen lisaburdin gehiago eskuratzera. Herrialde desberdin batekoa eskuratzerakoan, herrialde mugakidekoa nahi nuen, eta horrela hurrenez hurren".

Bildumagile komunitatea

49 urte darama Carlos Uzkianok munduko lisaburdinak gordetzen, eta, bereziki, Europa luze zabaletik bidaiatzen. Hain zuzen ere, Belgika izan du Uzkianok azken geraleku. Aiaraldea Komunikabidearekin batzartu baino egun batzuk lehenago bertan izan zen eta pare bat pieza ekarri zituen berarekin besapean. Baina ez da bakarra. Bildumagile komunitate handia da lisaburdinen atzetik dabilena, aurkikuntzak trukatu eta komunean jartzen dituena.

Uzkiano 20 urte zituela hasi zen beste bildumagileak ezagutzen. Bizkaitik Alemaniara lau urterekin joandako migrante batek zabaldu zizkion nazioarteko bildumagileen komunitateko ateak: "Gutun bat jaso nuen etxean, Maria izeneko neska batek sinatzen zuen, bera ere bildumagilea zela esanez". Bien arteko laguntasun-harreman estua sortu zen orduan, gaur egun ere mantentzen dutena. Alemaniako bere kontaktuak Europa erdialdeko beste bildumagileekin jartzen du harremanetan Uzkiano: "Bildumagileren batek bere bilduma erretiratu nahi badu edo dena delakoa, bertara bidaitzen dut". Alemaniako bildumagilea ate bat izan da Carlos Uzkianorentzako, baina ez bakarra;

Frantzian jatorria duen nazioarteko bildumagile elkarte bateko kide da. Elkarteko kideen artean hartueman estua daukate, eta hori du gaur egun informazio iturri nagusia Delikako bizilagunak. Elkarteak zubi lanak egiten ditu Europako bildumagile komunitatea osatzen duten 70 lagunen artean. Eurofer clubak, horrela du izena lisaburdinen bildumagileen elkarteak, argitalpen desberdinak plazaratzen ditu, eta bertan jasotzen dituzte gaiarekin erlazionatutako kontu desberdinak. Gainera, lau urtean behin, nazioarteko tokpaketa bat egiten dute. Aurtengoa Malagan izango da, Torre del Mar herrian.

Bilduma oparoa

Ez da nolanahikoa Carlos Uzkianok urte guzti hauetan bildu duena. Bilduma txiki bat izan behar zuena ia 1.200 lisaburdinek osatutako museoa da, Delikako etxean ondo gordea duena. Antzinarotik 1940. urtera arteko lisabrudinak eta arropa lisatzeko sistemek osatzen dute bilduma, altxor etongrafikoa bere horretan.

Amaren XX. mende hasierako Unión Cerrajera Mondragon enpresak ekoiztutako lisaburdin txikiak dira bildumaren zentroa. Hortik abiatuta, Alemania, Ingalaterrako, Estatu Batuetako, Txinako edota Indiako lisaburdinak daude bildumaren barruan, zein baino zein landuagoa. Lisaburdinen funtzinamendua ere aldatu egiten da tokian toki eta graian garai: ikatzezkoak, gasolinazkoak, elektrikoak... Guztiak daude ordezkatuta Carlosen museoan. Orduña Hiria Museoan erakusketa abian duen Juan Luis Abajo 'Porrilló' margolariak berak margotutako lisaburdina ere badu bilduman.

“Ondo gorde nituen baserritik erreskatatutako amaren lisaburdinak, eta bilduma handitzea erabaki nuen. Hasieran uste nuen 15-20 lisaburdin bilduta osatuko nuela nire kolekzioa”

Oraindik ere handituz doa bilduma, baina denbora aurrera joan ahala geroz eta pieza bitxiagoak dira Carlos Uzkianori interesatzen zaizkionak: “Lisaburdin unikoak edo oso tirada mugatua dutenak biltzen ditut, honezkero nahiko bilduma oparoa duakat, eta lisaburdinen abaniko handia dago bertan ordezkatuta”.

Hain bilduma handiak gainera, kontserbazio berezia behar du. Carlos Uzkianok lisaburdinak zaharberritu gabe gordetzen ditu: “Beste bildumagile batzuek konpondu egiten dituzte, niri gustatzen zait erabiliak daudela erakustea. Jaso ditudan modu berean gordetzen ditut, argizari ikusezin kapa bat botatzen diet soilik herdoila ekiditeko”. Hilabetean behin hautsa kentzen die banan banan guztiei, eta hezetasuna eta tenperatura ere zorroztasunez zaintzen ditu.

Ezkutuko erakusketa museora

Abenduaren 17an inauguratu zuten Carlos Uzkianoren erakusketa Orduña Hiria Museoko antzinako objektuen aretoan. Lisaburdinena da Museoak hartzen duen lehenengo sei hilabeteko erakusketa tenporala, eta ekainaren 26ra arte egongo da ikusgai. Uzkianok bere etxeko bilduma osatzen duten 1.200 piezetatik 300 hautatuak jarri ditu bertan ikusgai. Asko izan ziren hirian harritu egin ziren bizilagunak, inork gutxik zekien eta Delikako etxe batean tamaina horretako altxorrik gordetzen zenik.

“Asko kostatu zitzaidan erakusketa prestatzea, oso ezkorra nintzen hasieran. Senideek baino ez zekiten nik lisaburdinak biltzen nituela”

“Asko kostatu zitzaidan erakusketa prestatzea, oso ezkorra nintzen hasieran. Senideek baino ez zekiten nik lisaburdinak biltzen nituela”. Hamaika Kale elkartekoen ekiteak fruituak eman zituen azkenan, eta errealitate bilakatu zen erakusketa lehendabizikoz. Behin jendaurrera azalduta Uzkianok ez du baztertzen beste erakusketaren bat egitea, beste aretoren batean. “Lehenengo egunetan ez nuen lorik egiten (barreak), jendea ez da kontziente honek duen balioaz”.

Bildumaren etorkizunaz galdetuta bildumagileak argi dauka: “Gustatuko litzaidake egunen batean bilduma guzti hau erakunde publikoren batek hartzea eta hiribururen batean geratzea gordeta, nik bildutako hau etorkizunean ere ondo zaindua egon dadin”.

Mundu osoko 300 lisaburdin daude ikusgai Orduña Hiria Museoan **Aiaraldea.eus**

kultura

“Zirkuak gauza asko ematen dizkizu: ezinezkoa zela uste zenuena egitea”

IKER GALARTZA (Amezketa, 1977) DA ‘GURE ZIRKUA’ PROIEKTUAREN KIDE ETA SORTZAILEETAKO BAT. PAILAZOA ETA AKTOREA IZANIK, GERTUTIK JARRAITU DU MAGIAREN MUNDUA BETI, ETA EUSKARAZKO ZIRKUA AMESTETIK OGIBIDE BILAKATZERA IGARO DA.

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Zer da Gure Zirkua?

Magia eskaintzen duen familia bat da Gure Zirkua. Saiatzen gara atontzen, polita jartzen, musikarekin mimatzen... Azken finean, gozatzen. Gozatzeko ez da behar arriskuak hartzea, ez du merezi. Familia batek sortutako magia da, beraz, gurea. Batzuk nekatuta alde egiten dute eta kide berriak etortzen dira, baina oso nukleo sendoa da.

Zenbat lagunek osatzen dute zuen familia sozial eta profesionala?

18 lagun gabiltza. Asteburuetan bikoteak etortzen dira, baina ez beti. Emanaldi bakoitzean 18 mugitzen gara.

‘Gure Zirkua’ sortzea erabaki zenuten duela bost urte. Nolatan?

2017ko urrian bost emanaldi eman genituen, kamioirik gabe. Horrela lortu genuen hesiak eta egurrak margotzea. 2018ko ekainean erosi genuen kamioia, bigarren eskukoa; eta orduantxe hasi ginen ibilian.

Nolatan otu zitzaizuen euskal zirkua gorpuztea?

Aldaketa garaia zen niretzat, 40 urteko krisialdian nengoen. Lehendik ere, pailazo emanaldiak genituen (urtean 80 bat), eta antzerkiarekin nahikoa nuen. Pailazo bikotea hil zitzaidan, eta aldaketa beharra nuen.

Txikitatik asko ikusi dut zirkua, baina ezinezkoa zela uste nuen... Norekin hitz egin behar da zirkua egiteko? Eta itxaron gabe, sortzea erabaki nuen. Garai hartan Sevillan (Espainia) egon nintzen *Allí abajo* telesailean bost urtez, eta soldata hori horretarako erabiltzea erabaki nuen. Lana sortuko zuela banekien, eta azken finean, gure hizkuntzan eta gustatzen zaiguna egiten gaude lanean... non sinatu behar da holako lan bat? Gurasoek zoriontzen gaituzte, umeek gurekin argazkiak atera nahi dituzte... Oso esker oneko lana da, ni horrela zoriontsua naiz. Ez nuke sinatuko bestelako lanik orain.

Karpa, azpiegitura, artista taldea... Nola osatzen da halako ekimen bat?

Kide gehienak beste emanaldi batzuetatik ezagutzen nituen. Musikariei, esaterako, zirkuko abenturara batzeko bi gazteren bila nenbilela kontatzean beraiek etorri nahi zutela esan zidaten. Ekain malabaristak ere berak bidali zuen kurrikuluma 17 urte zituenean. Ane Miren ere horrela gehitu zen, Tolosako emanaldi batean laguntzeko eskatu nion, eta gaur arte. Garazi orain Frantzian dago kable gainean aritzen, eta asko pozten gara (gu utzi gaitu, baina bueltatuko da: gaztea da, eta bizitzan hegan egin behar da).

Euskal Herrian beti egon da zirkuarekin lotura, hortaz. Aukera falta ere?

Bai. Horregatik, jendeak emanaldiak herriz herri egiten ditu, bolo formatuan. Ez da erraza, ordea: Garazik, adibidez, kablea iltzatzeko azpiegitura, aseguruak eta abar behar zituen. Zirkuak baimen guzti horiek lotuta egonkortasuna ematen dizu. Zure piezan soilik jarri behar duzu arreta, eta gozamena da hori.

Pandemiak ere ez du zuek geratzea lortu.

Pandemia garaian Arrasaten egon ginen hilabete eta erdiz. Albisteak eta egoera egun batetik bestera aldatzen zirenez (herrietako mugikortasun mugak eta bar) zirkua bi lekutan finkatzea erabaki genuen.

Zirkuaren munduan euskara erdigunera ekarri duzue.

Euskal Herrian zirkua egiten duen jende asko dago. Emanaldi propioak eta ikuskizunak dituzte, baina karpa edo zirku formatuan ez dago besterik. Gurea erakusleihoa da artista askorentzat zentzu horretan, hortik lantxoak ateratzen zaizkie gero. Gure Zirkuak egonkortasuna ematen die artistei, astero-astero emanaldiak ditugunez, soldata lortzen dugu.

Dena den, buruhaustea ere bada zirkua, baina dena partekatzen dugu taldean: emanaldi proposamenak, Karabanak, kamioia, karpa... Gurea munstro txiki bat da, eta logika baten baitan antolatu behar da dena.

Belaunaldiartekotasuna ere bada zuen ezaugarrietako bat.

Bai. 47-48 urteko artistak ere baditugu, Londresen, Japonian zein Los Angelesen aritu dira zirkua egiten, eta euren ibilbideko azken txanpa norbere herrian egitea ederra da. Zirkuan lo egiteko zein norbere etxera itzultzeko aukera ematen du horrek, txikia baita Euskal Herria.

Bestetik, gure neska-mutilak ditugu, jolasera datozenak eta emanaldian ateratzen direnak

gero: oso ona da beldurrak galtzea, ohitzea eta esperimentatzea. Etxekolanak egiten zirkuan egoten dira, edo azterketa garaian ikasten...

Ahalduntze prozesu bat eskaintzen du Gure Zirkuak, beraz.

Bai. Ibonen alaba Maddik abestea gogoko du, eta beste pauso bat eman du: orain hasi da aitarekin batera hiru pieza kantatzen. Gero nahi duena egingo du: kazetaria, irakaslea edo iturgina izango da, nahi duena! Baina bitartean goza dezala. Esperientzia ez zaio ahaztuko!

Amurrio izango duzue hurrengo geltoki. Zerekin egingo dute topo ikusleek?

Aurten planteamendua aldatu dugu. Beste zirku batzuek sei urtez bira edo espektakulu bera mantentzen dute. Gure pasio txikia beti berritzea da, berdina eskaintzen dugu baina proposamen desberdin batekin. Azkenean, Gure Zirkuko poz, magia eta esentzia mantendu behar da, baina berritasunak eskaini behar dira. Aurten, dekoratua aldatu dugu.

Eboluzioa bistakoa da gure txiki edo gazteen artean ere. Kontuz ibili behar da, ordea, profesionalizatzearekin: ez dugu hasierako inozentzia, maitakortasuna edo xarma galdu behar. Era berean, umeei ezin zaie presiorik sartu, segurtasuna eta denbora eman behar diegu. Eta hori guztia, oso polita da.

"Txikitatik asko ikusi dut zirkua, baina ezinezkoa zela uste nuen... Norekin hitz egin behar da zirkua egiteko? Eta itxaron gabe, sortzea erabaki nuen"

Eta zer ez dute ikusiko? Karparen inguruan eta atzean zer nolako bizimodu edo lana dago?

Karpan ikusten dena Gure Zirkuaren isla da: hemen elkarbizitza handia dago, dena egiten dugu elkarrekin. Oso erreala da gure zirku bizitza, eta magikoa. Hemen lan handia dago, baserria bezalakoa da: mantenu lan asko dago, entrenamenduak, janaria prestatzea... Dena den, saiatzen gara asteburuak guretzat ere berezi bilakatzen: ostiral gauean pizza afaldu genuen, eta gaur brokolia. Antolaketa handia dago: astelehen goizetan umeak eskolara eramateko antolatzen gara, edo baten batek medikura joan behar badu... Lasai-lasai gaudenean ere beti dago zer hobetu.

Gure Zirkuaz gain, udan, tailerrak antolatzen hasi zarete. Bada harrobirik.

Bai. Umeek egin behar dutena jolastea da, esperimentatu eta deskubritzea. Zirkuak gauza asko ematen dizkizu: ezinezkoa zela uste zenuena egitea (kable gainean ibiltzea kasu). Horrek ematen duen konfiantza sekulakoa da. Musika gehitzean, gainera, irudimena lantzen dute, eta musika entzuten ikasi; eta azkenean, gauzak sortzen hasten dira. Eskola askotatik deitzen gaituzte.

Aurtengo denboraldia hasi berri duzue. Nolako uzta dator?

Durangon hasi dugu denboraldia, eta Amurrio izango da bigarren geldialdia. Bizkaian ibiliko gara ondoren, eta abuztuan Orion egotea gustatuko litzaiguke, hilabetez. Udazkenean Nafarroara joango gara, baita Lapurdira ere. Hondarribia, Bortziriak... toki asko ditugu buruan, eta aurten ez bada, hurrengo urtean itzuliko gara.

"Zirkua baserria bezalakoa da: lan eta antolaketa handia dago. Gure Zirkua geratzeko eta aldatzeko etorri da"

Iruñerrian, esaterako, bost aste eman genituen iaz, jendetza baitzetorren etengabe. Batzuk euskara soilik entzungo dute Gure Zirkuan, eta horrek euskara gorrotatzetik maitatzera igarotzea eragin lezake, euskara magikoa dela ulertzea.

Duela bost urte erabaki zenuen Gure Zirkuaren ametsa betetzea. Hamar urte barru, zer gustatuko litzaizuke bilakatzea?

Porrotxek behin hala esan zidan, 'Oso ondo, Iker! Baina orain honi eutsi egin behar zaio!' (barreak). Gure Zirkua izena horregatik jarri genuen. Biharko egunean, 70 urterekin, berdin-berdin etorriko naiz hona esketxa egiteko eskatzen; edo agian ez didate utziko. Hau geratzeko eta aldatzeko etorri da. Kamioia izorratuko da, baina etorriko da beste bat. Hobetzen jarraituko du, eta gauza asko egiten.

Gure Zirkua ikustera euskaldunak etortzen dira, baina akaso mundura atera beharko da nozbait, zergatik joango dira trikitilariak Boisera eta Gure Zirkua ez? Gure proiektua ibiltaria da, beraz, zergatik ez!

Abiaga kalean jarriko dute Gure Zirkuko kideek koloretako karpa. **Gure Zirkua**

kultura

Herriko kulturaren egoeraz eta aurrera begirako erronkez eztabaidatu zuten Juan Jose Ibarretxe lehendakariak, Txani Rodriguez idazleak, Izar Mendiguren kazetariak eta Izaskun Alonso margolariak iragan ostiralean.

Laudioko kulturaren oraina eta etorkizuna hizpide Lamuza parkean

Ander Añibarro alkateak eta Felix Mugurutza udal teknikariak aurkeztu dute ekimena. **Laudio Udala**

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Solasaldi berezi batez gozatu ahal izan zuten iragan ostiralean Laudioko Lamuza parkeko Kasinora bertaratu zirenek. Ezohiko ekimena izan zen, batez ere, bertan parte hartu zuten hizlariengatik. Izan ere, Kulturzaleak elkarteko kideek Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Txani Rodriguez idazlea, Izar Mendiguren kazetaria eta Izaskun Alonso margolaria batu zituzten mahai berarekin bueltan, Laudioko kulturaren orainaz eta etorkizunaz hitz egiteko. Txema Urquijok ere parte hartuko zuen solasaldian, baina azken unean huts egin behar izan zuen, lan kontuak medio.

Alonso arduratu zen mahaingurua dinamizatzeaz, antolakuntzako kidea delako. Kulturzaleak elkartearen nondik norakoak azaldu zituen sortzaileak. SOS Lamuza Parkea plataformatik eratorritako talde bat dela kontatu zuen, eta helburu nagusi bat dutela: Lamuza parkea "kulturaren parke" bihurtzeko dituen aukerak aztertu eta aldarrikatzea. Horretarako egin zuten iaz itsas-edukiontzien ekimena, besteak beste.

Azalpen horren ostean, beste hiru hizlariei eman zien hitza Alonsok. Laudioko kulturari buruzko ideia ugari plazaratu zituzten, bakoitza bere esperinetzia pertsonaletik abiatuta. Ibarretxek, adibidez, nazioartean (Lehendakari Agirre fundazioko kide moduan) eginiko lanak izan zituen hizpide, eta gauza bat nabarmendu zuen batez ere: herri baten kultura estrategia herri horren sustraietara lotuta egon behar dela.

Txani Rodriguezek, berealdetik, herrian dauden (eta sortzeke dauden) kultur azpiegituretan jarri zuen arreta, eta azpimarratu zuen ez dela gauza bera sortzaile edo ikusle moduan behar dena. "Egoera ona ez izateak sorkuntza bultzatu dezake, haserreak askotan sorkuntza bultzatzen duelako".

Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Txani Rodriguez idazlea, Izar Mendiguren kazetaria eta Izaskun Alonso margolaria batu ziren mahai beraren bueltan

Izar Mendigurenek, bere aldetik, Laudion jada egiten den kultura-sorkuntza guztian jarri zuen arreta, eta horren balioa goraipatu zuen, "ekitaldi erraldoi edo azpiegitura handietatik harago".

Parkearen aukerak

Solasaldiaren bigarren zatian, Lamuza parkean jarri zuen begirada Alonsok, eta "kulturaren parkea" kontzeptuari buruz hausnartzea eskatu zien beste hiru hizlariei. Ibarretxek nabarmendu zuen parkean garatu daitekeen estrategia herri osoko plangintzari lotuta egon behar dela, eta "eskualde mailan" pentsatzeko garrantzia ere jarri zuen mahai gainean. Mendigurenek bat egin zuen ideia horrekin, eta parkeko azpiegiturei zuku gehiago ateratzearen alde kokatu zen. Rodriguezek, bere aldetik, SOS Lamuza Parkea plataformak eta Kulturzaleak elkartean aritutako kideei eskerrak emateko baliatu zuen bere hitzartzearen zati bat, "uste hauetan zehar eginiko lan guztiagatik".

Kultura kontseiluan parte hartzeko deia

Dozenaka lagun bertaratu ziren solasaldiaz gozatzera, eta horietako bi animatu egin ziren euren iritzi eta hausnarketak plazaratzera.

Kulturzaleak elkarteko beste kide batek ere hartu zuen hitza. Laudioko Udalak berriki abian jarri duen Kultura kontseiluan izena emateko deia zabaldu zuen, marko horren sorrerak herriko kulturaren garapean izan dezakeen garrantzia nabarmenduta.

Orozkoko 11 baselizen ilustrazioak, museoan ikusgai

11 ilustrazio egongo dira ikusgai erakusketan. **Bizkaiko Ermiten Elkartea**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Orozkon gaur egun dauden baseliza guztiak kolpe bakarrean ikusteko aukera egongo da herriko museoan gaurtik aurrera. Orozkoko ermiten luma-muturreko marrazkien erakusketa inauguratu berri dute, eta ekainaren 5era arte egongo da ikusgai.

Javier de Ibarra Zubiak egin ditu ilustrazioak. "Urte asko daramatza Bizkaiko baselizak marrazten. Hainbat liburu argitaratu ditu, baina hau da bere lehen erakusketa", azaldu du Iñaki Garcia Uribek. Bizkaiko Ermiten Lagunak elkarteko kideak dira Javier eta Iñaki. 70 lagun inguruk osatzen dute taldea. "Hainbat profiletako pertsonak gaude: zientzialariak, antropologoak edota historialariak...".

Maiatzaren 20an egin zuten erakusketaren inaugurazioa, eta, aurreikusi bezala ekitaldi berezia izan zen. Izan ere, Begoña de Ibarra bertaratu zen museora. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaria da bera, eta Javier de Ibarra Zubiaren alaba ere bada. Iñaki Garcia Uriberen 12urtekoalabak (Udiarraga García Gastaka) ere parte hartu zuen ekimenean, euskarazko hitzartzea egiteaz arduratu zen eta. Ekainaren 3an, aldiz, ermitei buruzko hitzaldia eskainiko du Garcia Uribek berak. "Bizkaiko ermitei buruzko zenbait datu estatistiko partekatuko ditut, eta herri bakoitzak duen baseliza kopuruaren atzean dauden arrazoiak ere izango ditut hizpide", aurreratu du etnografia adituak.

18 baseliza, 6 galduta

Gaur egun hamaika baseliza daude Orozkon. "Guztiak daude egoera onean, bat izan ezik", zehaztu du Garcia Oribek."Urtean behin soilik erabiltzen diren eraikinak dira, euren patroiaren egunean baino ez baitira elizkizunak egiten. Baina urteko gainontzeko egunetan ere zaindu behar dira: hautsa pilatzen da, lapurrak sartzen saiatzen dira...".

Historikoki, kofradiak izan dira mantentze lanak egiteaz arduratu direnak. "Orozkon ere badaude horrelako taldeak. Baseliza batzuen giltzak baserri batetik bestera pasatzen dira oraindik ere".

Baina ermita guztiak ez dira zutik mantendu. Garcia Uriberen arabera, mota horretako sei eraikin desagertu dira herrian. "Galdu zen ermita horietako bat da erakusketaren kartelean agertzen dena. Museotik 20 metro eskasera zegoen, baina eraitsi egin zuten kale bat eraikitzeko".

'Porrilló'-ren lana izan zuten Urduñan hizpide Museoen Nazioarteko Egunean

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Martxoaren 18an Museoen Nazioarteko Eguna izan zen eta Orduña Hiria Museoko kideek inaugurazioaren hirugarren urteurrena ospatzeko probestu zuten eguna. 'Porrilló' artistaren lanaren inguruko solasaldia izan zen ekintza nagusia.

Martxotik ikusgai dago Juan Luis Abajo 'Porrilló' urduñarraren obra Museoko Fede Ruíz aretoan. Atzoko ekitaldian, ordea, ikusgai dauden artelanetatik harago, margolariaren obra guztiaren birpasa egin zuten jendez betetako aretoan.

Osasun arazoak tarteko, 'Porrilló' ezin izan zen solasaldira bertaratu, eta Leire Sain de Aja artista arduratu zen bere lanak aurkezteaz. Eguna amaitzeko, mokadua eskaini zuten, Peri Ibañez musikari urduñarrak eraikina girotzen zuen bitartean.

Ekintza gehiago

Museoen Nazioarteko Eguneko ospakizunak ez dituzte atzo arratsaldeko ekintzara mugatu soilik. Goizean ere ate irekien jardunaldia eskaini zuten. Aste osoan zehar, gainera, hiriko ikastetxeetako ikasle eta irakasleen bisitak jasotzen ari dira.

Aldi baterako erakusketa berria ere inauguratu berri dute Orduña Hiria museoan; Cristina Dulanto margolariaren *Texturas y musas* olio-pintura bilduma.

kirola

Altzarrate Futbol Taldeko jokalariak **Aiaraldea.eus**

Emaitza positiboekin agurtzen ari dira denboraldia hainbat talde eta kirolari

Kirol denboraldia amaitzen ari da hainbat diziplinetan eta zenbait taldek lortu dute finaletan edota azkenengo kanporeketetan sartzea igoera fasea jokatzeko.

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Maiatza izaten ari da klub eta kirolari askorentzat azken hilabeteetan landatutako hazien uzta jasotzeko garaia. Jakina, lan gogorra beti ez dator emaitzekin bat, arerioek ere badutelako zer esan, baina 2021-2022 denboraldian zenbait klubek mugarria jarri dute euren historian.

Ziurrenik, harroena lehiaketak agurtzeko orduan Zaraobe Saskibaloi Taldea izango da. Berez, Amurrioko klubak jokalari mordoa dauzka eta zuzendaritzaren artean ezinegona nabaria da Gasteizko zenbait erakundek duten jokaera dela medio. Alegia, klub historikoek ohitura dute Amurrioko jokalari onenak eramateko eta presidentearen ustez, “neskak oso gazteak dira, egin behar dutena da euren lagunekin jokatu herrian eta ondo pasa”.

Horregatik, hain zuzen, elkarteko sei taldek lauko finala jokatu izanak -txapelketako finalerdiak- mezu argia bidaltzen du; ez da beharrezkoa Gasteizen jokatzea lehiaketaren mamian aritzeko. Zehazki, haur kategoriako taldeek -neskek eta mutilek- lortu dute lau onenen artean egotea, gauza bera egin dute emakumezkoen senior eta junior taldeek. Senior gizonezkoek, aldiz, bigarren postua eskuratu dute ligan. Nabarmentzekoa da haur kategoriako neskek lauko finaleko finala jokatu zutela Araba ahalguztidunaren aurka, baina nahiz eta galdu, Euskadiko Jokoetan neurtuko dituztela indarrak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako talde onenekin. Made Urieta Araskiko entrenatzailearen bisita izan zuten pasa den astean konfiantza hartzeko. Azkenik, aipatzekoa da saskibaloiak urrezko amaiera izango duela Amurrion asteburu honetan. Izan ere, Zaraobeko kadeteek Final Fourra jokatuko dute etxean.

Antzeko egoeran egongo da Sugarrak taldea. Maiatzaren 28an eta 29an klubaren asteburua ospatuko dute eta bere taldeek kantxak hartuko dituzte goizeko 09:30etik 12:30ak arte egun horietan. Horrez gain, zozketak eta lehiaketak izango dituzte, baina bi egun horien osagai nagusia Sugarrakeko junior mutilek jarriko dute. Berez, denboraldi erdian emaitza bikaina lortu zuten kategoria igoera erdietsita, baina hori gutxi balitz, 1. mailan lauko finalera heltzeko gaitasuna izan dute. Hori bada marka ederra, baina asteburuan etxean, Laudioko Udal Kiroldegian, izango dute aukera txapeldunak izateko. Hori bai, bi partida irabazi beharko dituzte eta erronka ez da erraza.

Sugarrakek, bestalde, baditu bestelako arrazoiak nota onarekin amaitzeko denboraldia. Esaterako, Junior kategoriako neskek ere eskuratu zuten txartela lauko finelean egoteko eta Martin Larizgoitia laudioar gaztea hautatua izan zen Euskadiko Selekzioarekin Espainiako Preferente Kategoriako Txapelketa jokatzeko eta bigarren postua eurena izan zen.

Emakumeek agintzen dute

Eskualdean emakumezkoek protagonismo handia izan dute

futbolean. Adibidez, CD Orduñako jokalariek igoera promozioan sartu dira. Azkenean, zazpigarren sailkatu dira eta ez dute kategoria aldaketa gauzatu, baina taldeak zapore onarekin amaitu du. Izan ere, Arbieto gotorleku bilakatu dute eta denboraldi osoan hiru partidu bakarrik galdu dituzte: Basauri Kimuak, Galdakao eta Erandioko nesken aurka.

Altzarrate Kirol Elkartea, bestalde, buru-belarri dago sartuta 2021-2022 denboraldiko azken txanpan. Arabako Kopako ligaxkan hirugarren postua erdietsi ostean, Ansares taldearen kontra erabakiko da igande honetan finalean egongo diren edo ez. Edonola ere, lorpen hori ez da samurra, aintzat hartzen bada klubeko talde nagusia jokalari oso gazteekin osatu dutela eta aurkariek maiz esperientzia handiagoa dutela.

Izen propioak futbolean

Futbol profesionalaren esparruan zenbait izen nabarmendu dira aurten. Adibidez, Asier Benito amurriorra Asteras Tripoli talde greziarra joan zen eta Thaylor Luzanbadio, aldiz, Hibernians Clubera, talde horrekin lortu du laudioarrak hango liga irabaztea eta, bide batez, kontratua luzatu diote beste bi urtez jokatu dezan uharte horretako txapelketa profesionalean.

Maiatza izaten ari da klub eta kirolari askorentzat azken hilabeteetan landatutako hazien uzta jasotzeko garaia

Iñaki Bea entrenatzaile amurrioarrak Jose Luis Mendilibarrekin osatutako taldea atzean utzi eta Dominikar Errepublikako ardura hartu du bere gain, ez bakarrik talde lehiakorra sustatzeko, baita etorkizuneko oinarriak jartzeko Ameriketako herrialde horretan.

Bestalde, Haizea Castresana marrazainak emakumezkoen ligako elitean konfiantza osoa dauka eta horren adibidea da hautatua izan zela FC Barcelona-Real Madrid norgehiagoka epaitzeko.

Hala ere, dena ez da futbol profesionala eta aipatzeko modukoa da Javier de la Torre Duranaren kasua. 19 urtez CD Orduñan jokatu eta gero, pasa den larunbatean izan zuen bere azkenengo partida Arbieton. 6-1 gailendu zen bere taldea eta urrats garrantzitsua egin zuen kategoriari eusteko, nahiz eta dena azken jardunaldian erabakiko den. Klubak bere ibilbide luzea aitortu zuen eta norgehiagokaren ondoren omenaldia egin zioten.

Eskubaloia

Larunbatean Gasteizko Arriaga Kiroldegian jokatu zuten Laudio Eskubaloiko kimuek Arabako Kopako finala. Corazonistas izan zuten aurrez aurre eta lehenengo zatian emaitza parekatua izan zen. Ordea, bigarren zatian Arabako hiriburuko taldeak gol abantaila lortu zuen eta saria berarentzat izan zen.

Laudioko klubeko arduradunek, edonola ere, nabarmendu dute denboraldi amaiera pozik egoteko modukoa izan dela, hobetu baitute hilabete hauetan.

Bestalde, senior taldeak 2. mailara igotzeko partida jokatu zuen ere asteburuan, eta galdu ondoren, hurrengo fasera igarotzeko aukerarik gabe geratu dira.

Frontenis

Artziniegarra izan arren, Angela Vadillok Zierbenako Galipa klubarekin egin du proba frontenisean aurten eta emaitzak ezin hobeak izan dira, bere debut urtean Bizkaiko Txapelketako finalerdietan sartu da eta larunbat honetan partida jokatuko du finalean aritzeko.

Denboraldi erdian

Ez da ahaztu behar zenbait kirol, txirrindularitza, esateko, denboraldiaren ekuadorrera ere ez direla heldu eta atletismoan hitzordu garrantzitsuak falta direla oraindik.

Denboraldi amaieran emaitza bikainak erdietsi dituzten eskualdeko zenbait kirol talde. **Aiaraldea.eus**

kirola

MENDIKO TRAIL-A

Orkatzak taldea ofizialdu eta elitezko mendi maratoi bat antolatzeari ekingo diote

Amurrio Antzokian egin zuten aurkezpen ekitaldia. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

2014. urtean sortu zen Orkatzak, mendian ibili eta korrika egiteko zaletasuna zuten zenbait laudioarren eskutik. Arrakasta izan zuen ekimenak: urte gutxitan 60-70 lagun inguru batu dira taldera. “Hainbat profiletako kideak gaude. Badago lehiatzen duen jendea. Beste batzuk, aldiz, mendian ibiltzea dute gogoko”, zehaztu du Peli Ortiz de Zaratek.

Gauzak hala, pauso bat gehiago ematea erabaki dute taldeko kideek: elkartea eratuko dute, orain arte talde informala zena ofizialtzeko. “Orain arte, federatu nahi zuten kirolariek Orozko edo Amurriora jo behar zuten. Laudion badago Goikogane mendi taldea, baina mendizaletasun tradizionalera biderat uagoa dago”, azaldu du Orkatzeko kideak.

Nabarmendu duenez, tramite bakan batzuk falta zaizkie elkartea Eusko Jaurlaritzaren erregistroan sartzeko. “Laudioko Udalarekin ere bilduko gara, bertako elkarteen erregistroan ere izena emateko”. Hemendik bi astera egin nahi dute taldea aurkezteko ekitaldia.

Basoetako Orkatzak Mendi Klubaizango da taldearen izen ofiziala. Izan ere, erregistrora jo zutenean konturatu ziren bazegoela Orkatzak izeneko beste elkarte bat. “Arabako ehiza elkartea da. Horregatik, ezin izan dugu izen hori hartu. Hori bai, kanpora begira Orkatzak izena mantenduko dugu".

Bi bazkide mota

Bazkidetza motei buruzko xehetasunak ere eman dituzte. “Bi bazkide mota egotea aurreikusi dugu. Lehena ohiko bazkidea izango da, eta urtean 20 euro inguruko kuota izango du. Beste figura ‘bazkide laguntzailearena’ izango da, eta 5 euroko kuota izango du”.

Mendi maratoia

Taldea ofizializatzearekin batera, ekimen publikoak antolatzeari ekin nahi diote Orkatzakeko kideek. “Bi egitasmo egin nahi ditugu udazkenean, izaera sozialekoak biak”, aurreratu du Ortiz de Zaratek. Baina datorren urterako ere gordeko dituzte indarrak, proiektu handi bat baitute esku artean: elitezko mendi maratoia egitea Laudion. “Laudioko Udalak atondutako ibilbide berdeak bateratu nahi ditugu horretarako. Gure herrian mendi eta aldapa asko ditugu oso espazio txikian, eta hori baliatu nahi dugu”.

Ekimen propioetatik harago ere joko dute Orkatzeko kideek. “Herrian egiten diren beste kirol probetan arituko gara laguntzen, orain arte egin dugun bezala”.

BMX ETA SKATE-A

Ikuskizun txundigarria eskaini zuten Amurrioko ‘bowl’ berrian BMX eta skate profesionalek

Goi mailako profesionalak elkartu ziren Amurrioko bowl berriaren inaugurazioan, Danny Leon eta Teresa Fernandez profesionalek erakustaldia egin zuten. Eurekin batera Ian Ponciano 14 urteko bermeoarra eta Sergio Layos aritu ziren ere, ikuskizun bikaina erakutsita.

GIRO BIKAINA

Aiaraldeko Soinu Sistemak eta Sabin Guarezti bakarlariak girotu zuten arratsaldea. Ehunka lagun bertaratu ziren ikuskizunaz gozatzera. Horien artean Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko zenbait zale trebe ere egon ziren euren gaitasunak probatzen, eta guztien artean jendearen txaloak eta miresmena piztu zituzten trikimailu eta salto izugarriekin.

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. ekainaren 8an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Naia

Zorionak maitia! Bizitza alai eta zoriontsu gozatzen jarraitzen du. Musu pilo bat eta maite zaitugu!

Periko eta Maripaz



Arantza eta Jose

Zorionak lotzen zaituzte goizero. Musu pilo bat!!!

Periko eta Maripaz

Peio

Zorionak aitatxo! Aurten eta datozen urteetan elkarrekin hegan jarraituko dugu, eskutik helduta!

Zure familia

Maddi

Ez ginen mundu honetara obeditzeko jaio! Maite zaitugu Patrona!

Murgako zinemako lagunak

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Denborapasak

ERRAZA

			9		2	3	6	5
	7					4	2	8
	2	5		3	8			7
		2			3	6		
	6		7	4	9	2	5	3
			2	5	6	8	4	
	4		3			5	8	
3	9	6	5		4			
5		8	6	2	7		3	4

ZAILA

	4		3		2			
			8					
		2				6	8	
		7		4	5	8	2	
4					8	3		
	6		7				4	5
				9	7	5		
3	8	9	4				7	
	5		2	8				

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketak

Irisarriko EHZ jaialdira joateko bonoa zozketatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian
Zozketaren data: ekainaren 13an, 12:00etan.

Laudioko 10K herri lasterketan parte hartzeko dortsala

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian
Zozketaren data: ekainaren 3an, 12:00etan.

KOKORIKO

IRAKURKETA GUNEA

HAMAIKA KUTIXI FILOSOFIKO

Editoriala: 1545 argitaletxea
11 istorio, 11 ilustrazio eta 11 galdera. Hau da filosofiari buruzko lan honetan topatuko duzuena.
Haurrekin filosofiaz hitz egiteko osatu den bilduma da. Hainbat idazlek idatzi dituzte testuak eta gai ezberdinak jasotzen ditu, baita galdera ugari bildu ere gaiez hitz egiteko.

MIÑAN

Idazlea: Amets Arzallus eta Ibrahima Balde
Adina: 14 urtetik gora
Pasarte gogorrak kontatzen dituzte idazleek eleberrian. Familiako haur txikia falta denean, familiak bera topatzeko egiten duen Europarako ibilbidea. Ibrahimak ahotsez kontatua eta Ametsek letrak jarriaz kontakizunei.

JOLAS GUNEA

ARTZINIEGAKO PRESA

LEKUA: Artziniega (Araba)

AZALPENA: Naturan bainatzeko eta gozatzeko aukerak ematen dituen gune zoragarria da. Artziniegako erdigunetik paseo txiki bat egin beharra dago presara heltzeko.

Familian egiteko plan ezin hobea da, gune natural batetik paseo txiki bat eta eguzkiak gogor jotzen badu buekaeran bainatzeko aukera paregabea.

Bertatik, gainera, bestelako ibilbideak egin daitezke, inguruko mendietara.

DORAEMONEN DORAYAKIAK

OSAGAIAK:
- 2 arrautz
- 15 g azukre
- 60 g ezti
- 200 g irin
- 5 g legami
- Txokolate pasta
- 80 ml ur

NOLA EGIN?
- Txokolate pasta izan ezin beste osagai guztiak bote batean sartu eta ondo irabiatu.
- Zartagina berotu eta ondo berotuta dagoenean irabiatutako nahastea bota gutxinaka.
- Burbuilak ateratzea buelta eman eta eginda daudenean atera.
- Bi Dorayaki hartu eta erdian txokolate pasta bota.

ON EGIN

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Hartu eta eman

Pertsonak animalia lagunkoiak gara. Beste pertsona batzuekin harremana izatea beharrezkoa dugu bizirauteko. Harreman honek, gainera, ezin du edonolakoa izan, geroz eta kalitate altuagokoa izan harremana orduan eta egokiagoa izango da. Baieztapen hau, ondo analizatu zuen Emi Piklerrek, bere haurtzaindegian haurren kalitatezko zaintzen teoria garatu eta praktikan jarri zuenean, haurrik ez baitzen hil berak gidatutako haurtzaindegian, beste haurtzaindegietan gertatzen zen moduan. Harremanak eta zaintza kalitatezkoa izatearen garrantzia azpimarratu zuen.

Harremanak, ordea, ez dira errazak izaten, pertsona ezberdinen interesak agerian geratzen direlako. Beraz harremanetan hartu eta eman egin behar da eta hau batzuetan zaila izaten da.

Jendartean ezartzen diren botere harremanak daude alde batetik, eragin handia dutenak harremanak garatzeko eran. Generoa, arraza, adina, botere ekonomikoa... harreman horiek botere harremanetan oinarritzeko kontzeptuetako batzuk dira.

Adinaren kontzeptura etorrita, haur jaioberri baten gurasoen eta haur horren aitona-amonen arteko harremana ez da beti nahi bezala izaten. Haurraren gurasoek modu batean hezi nahi dituzte haur horiek, eta aitona-amonak sartzen dira beste modu batean gauzak egiten. Batzuetan, mesfidati usten zaizkie aiton-amonei haurren zaintzaren ardura.

Alde batetik, aiton-amonei duten adinagatik jendarteak ematen dien boterearengatik, uste dute egin nahi dutena egiteko legitimitatea dutela.

Bestetik, gurasoek beste modu batean egin nahi izaten dituztenean gauzak, beraiek hezi dituzten moduaren aurka egiten ari dira eta honek zuzenean kolpatu ditzake aitona-amonak, beraien metodoak egokiak izan ez zirela.

Hartu eta eman, hor dago koska, harreman osasungarri bat izateko, entzun, hitz egin, konpartitu... Ez dago formula magikorik, norberak dituen botere harremanen inguruan hausnartu, bestearen iritzia errespetatu eta noski entzun, ondokoa entzun.

AIARALDEKO HEZKUNTZA FAKTORIA



Irudi engainagarriak

1etik 10era zenbatuta dauden zati hauetatik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta. Bereiz itzazu onak eta engainagarriak.

Zenbat?

Bide batez, zenbat saguzar ikusten dituzu irudi handian?

Hamaika ikustekoak

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



SOLUZIOAK

Kontra

Mundutik Aiaraldera

KATEE CONORAN

JAIOTERRIA
CLAREMORRIS (2010)

BIZILEKUA
AMURRIO

BIDAIAREN ZERGATIA
ERASMUS+ PROGRAMAREN BARRUAN ASTE BATEKO EGONALDIA EGIN DU AMURRIOKO FAMILIA BATEAN

"Hemen denak bizi zarete batera, pisu altuetan. Irlandan auzokideak askoz sakabanatuago gaude"

Erasmus+ izeneko proiektu batekin etorri zara Amurriora. Zertan datza proiektua?

Duela bi urte abiatu genuen hainbat ikastetxeren arteko proiektua da Erasmus+. Honen ardatza bigarren hizkuntzak ezagutzea eta lantzea da. Ni irlandarra naiz, ingelesa hitz egiten dugu nagusiki baina gure herrialdean irlandera (Gaeilge) ere hitz egiten da.

Proiektuak harremanetan jarri ditu Finlandia, Malta, Irlanda eta Euskal Herriko ikastetxeak.

Nire lehenengo aldia da proiektu honekin beste herrialdebatbisitatzendudala, kasu honetan Amurrioko Amaurre ikastetxera etorri gara. Eskolan, ordea, denbora asko daramagu gaia lantzen

Zer ekintza egin duzue Amurrion igaro duzuen denbora honetan?

Denetarik egin dugu. Nik kirolak izan ditut gogokoen eskupilota eta bolotan aritu gara, oso dibertigarria izan da.

Mendira ere joan gara eta euskal ohiturak ezagutzeko makina bat jardueraz gozatu dugu; hala nola euskal mitologia landu dugu

Bilbora joateko tartea ere izan genuen. Oso hiri ikusgarria da. Besteak beste San Mames estadioa bisitatu genuen. Nik ez nuen Athletic taldea aurretik ezagutzen.

Amurrioko familia batekin igaro duzue astea. Nolakoa izan da esperientzia?

Oso ona. Nik aurretik ezagutzen nuen familia. Izan ere, Irlandako nire etxean izan ziren iragan urrian, eta harremana mantendu izan dugu bideo-dei bidez. Oso pertsona atseginak dira.

Irlandarekin alderatuta, zer da gehien harritu zaituena?

Etxebizitzek asko harritu naute, zeharo desberdinak dira Irlandan ikusten dugunarekiko. Hemen denak bizi zarete batera, pisu altuetan. Gu askoz sakabanatuago bizi gara. Landa eremuko herria da gurea, Claremorris, eta etxe bakoitza larrez inguratuta dago, ez gaude auzokideak izatera ohituta.

Etxaldeetan bizi gara. Nire etxe ondoan beste bizilagun bat daukagu bakarrik, eta ez dago bereziki gertu.

Claremorris herri txikia da gurea, 1.000 biztanle ditu eta herrian hiru denda daude bakarrik.

Janariari dagokionean, ordea, ez dut desberdintasun handirik nabaritu. Nahiko gastronomia antzekoa dugula uste dut.

Euskarazko hitzik ikasi duzu?

Gutxik batzuk: Kaixo, bale, bai... (barreak).

IRLANDA

DESKRIBAPENA
Irlanda Europa ipar-mendebaldeko uhartea da. Bi banaketa administratiboetan dago banatuta: Irlandako Errepublika hegoaldean, eta Erresuma Batuaren menpe dagoen Ipar Irlanda. Ingelesa ez ezik Irlandako gaelera hitz egiten dute uharteko 380.000 hiztunek.

AZALERA
70.273 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
6,57 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK
Ingelesa eta irlandar gaelera dira ofizialak.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo, Koldo Rodriguez, Jon Catalan, Christian Alemany, Aitziber Alava, Endika Arribas, Jabi Asurmendi, Iñaki larrakoetxea, Elixarraitz Mendiguren, Gemma Corbella, Lander Ria, Cristina Gonzalez, Eunate Molinuevo, Andima Landaluze, Xabi Ugalde eta Alberto Martinez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · Urduña Orduña · Artziniegako Udala · ausolan · Arrankudiaga Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondoko Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio · Graf!k Tellería 2, Laudio (Araba) 94 672 65 43// info@grafiksarea.ecom · Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco Kultura eta Hizkuntza Politika Saila